DATORRENA

Telebista berriaren eta politikaren arteko elkarrizketaz IÑAKI SOTO > 3

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Hiriak eta herriak, gobernuak eta oposizioak RAMON SOLA > 11

2019ko ekainaren 22a | XIII. urtea • 625. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info

IXA TALDEA, MAKINEI EUSKARA IRAKASTEN > 22

J.C. RUIZ | FOKU

GAUR8
mila leiho zabalik

Arduraduna: Amagoia Mujika Telleria. **Erredakzioa:** Xabier Izaga Gonzalez.
Argitaratzailea: Astero. **Lege Gordailua:** SS-77/07. **Helbidea:** Portuetxe 23-2a. 20018 Donostia. P.K.: 1099. Tel.: 943 31 69 99 / Faxa: 943 31 69 98. **e-posta:** info@gaur8.info.
Publizitatea: Euskal Prensa. Tel.: 94 424 72 06.

Asiako gerrilla komunista zaharrena borrokarako prest, Filipinetan 04

Siriako gatazkak arrisku bizian jarri du aramera 08

Urundirua, Gasteizko hiriak nekazariei ezarritako zerga «gorrotagarria» 12

Elikadura, funtsezkoa ume zoriontsuagoak eta gizarte hobea izateko 18

Elkarrizketa: Eneko Agirre eta Jon Ander Campos 22

Sarean 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

03 **Iñaki Soto:** Telebista berriaren eta politikaren arteko elkarrizketaz
10 **Ula Iruretagoiena Busturia:** Lurraldeko arkitektura
11 **Ramon Sola:** Hiriak eta herriak, gobernuak eta oposizioak
17 **EXPRAI**
20 **Beñat Gaztelumendi:** Su eman
21 **Nerea Ibarzabal Salegi:** Produktu perfektuok
27 **Koldo Sagasti:** Itxoiten
27 **Itzea Urkizu Arsuaga:** Kuadrillakeriaz
31 **Amaia Urrejola:** Euskal Herrian ligatzea atsegin dugu!

Nafarroako Gobernua · Gobierno de Navarra
EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK) DIRUZ LAGUNDUA
Gipuzkoako Foru Aldundia

{ datorrena } **Iñaki Soto**

Telebista berriaren eta politikaren arteko elkarrizketaz

Telesailak kultura popular garaikidearen adierazpide nabarmenenak bihurtu dira. Gaur egun telesailek komunitateak eratzeko gaitasuna dute, tribu batetik abiatuz (friki deitzen ditugun horien taldeak) eta jendarteen azken muturreraino helduz. Telesailen bidez gure gogoak eta ezintasunak proiektatzen ditugu. Gainera, globalizazioaren ondorioz, mundu mailako komunitateak osatzera hel daitezke.

Imajinario kolektiboaren parte bihurtzen dira telesailak, eta bizitzaren aktibitate guztiekin loturak finkatzen dituzte. Politika horretarako esparru aproposa da, metaforen eta bestelako sinboloen behar nabarmena duen esparrua baita. Telesailak gauza konplexuak era sinplean azaltzeko tresna egokiak izan daitezke. Edo ez.

Fikzioaz gain, baita politikari buruzko fikzioaz gain ere, azkenaldian gertakari politikoei buruzko telesailak modan jarri dira. HBOk "Chernobyl" ekoitzi du. Hainbatek diotenaren aurka, nire ustez politikoki interesgarria da. Sobietar burokrazia eta negazionismoa kritikatzearekin bat –*spoiler*: Txernobylgo zentralak eztanda egin zuen eta arazoaren jatorrian pertsonak nahiz sistema izan ziren–, «sobietar gizon zaharraren» gorazarrea da. Gutxitan nabarmendu da hainbeste sobietarren heroitasuna. Zehatz-zehatza ez izan arren, egikera ikusgarria da.

Gerra Hotzeko blokeen beste aldean –AEBetan–, eta gerra komertzialean HBOren lehiakidean –Netflixen–, Ava DuVernayk "When They See Us" telesail laburra zuzendu du. "Central Parkeko Bostak" deituriko gazteen auzia kontatzen du. 1989an, beltzak eta txikanoak izateagatik bost gazte nola atxilotu zituzten, bortxaketa bat nola egotzi zieten eta kartzelan nola sartu zituzten azaltzen du. Baita gero errugabeak zirela demostratu zela ere. AEBetako Poliziaren eta kartzela sistemaren arrazakeria eta krudelkeria biluzten ditu telesailak. Zorrotza eta bikaina da. Donald Trump bera ere gogor kritikatzen du, garaian auzi honen harira New Yorkeko prentsan heriotza zigorra berrezartzeko eskatuz orrialde osoko iragarki bat sartu baitzuen. Aste honetan bertan Trumpi auziagatik galdetu diote. Gazteen errugabetasuna zalantzan jarri eta auziko ikertzailea goraipatu du. Linda Farstein da bere izena eta auziaren ostean krimen-liburuak idaztera dedikatu zen. Telesailaren harira, ordea, Random House argitaletxeak berarekin zuen kontratua eten du. Iragan astean, berriz, Elizabeth Lederer fiskalak Columbiako Unibertsitatean zuen kargua utzi zuen, ikasleen kanpaina bat dela-eta. Fikzioa errealitatean bertan eragina izatera hel daiteke garaiotan.

Telesailek eztabaida publikoan duten eraginaz harago, negozio eredu eta kultur kontsumoko ohitura berriek eragin soziopolitiko sakonagoak izan ditzakete. Horri heldu dio Gilliam Tett kazetariak "The revolution will be customised: the rise of pick 'n' mix politics" artikuluan [*https://on.ft.com/2Yoh1wV*]. Egunerokotasuneko pasarte batetik abiatuz –bere alabarekin telesailak hautatu eta ikusteko duen ohitura–, telebista kontsumitzeko era nola aldatu den gogoratzen du –oroitzen zarete, ordu berean, bakoitzak bere etxean, telesail baten kapitulu bakarra ikusten genuenean?– eta belaunaldi berrientzat hori sinestezina dela esaten du. Tetten ustez, telebista bezala, aurrerantzean jendeak eskaintza politikoa bera ere pertsonalizatu nahiko du (*customized*). Oro har, joera hori beren burua "The West Wing" telesaileko Josh Lyman pertsonaiaren antzeko ikusten duten analisten burutapenak baina interesgarriagoa iruditzen zait. •

> «When They See Us» telesailaren harira, Ramdom House argitaletxeak Linda Farstein ikertzailearen kontratua eten du eta Elizabeth Lederer fiskalak Columbiako Unibertsitateko kargua utzi behar izan du

MENDE ERDIKO IRAULTZA

Asiako gerrilla komunista zaharrena, borrokarako prest Filipinetan

ATZERRIA / GAUR8

Gobernuarekin bakea negoziatzeko prest dagoela adierazi du Filipinetako Herriaren Armada Berriak, baina baita borrokatzeko ere. Rodrigo Duterte presidenteak gerrilla suntsitzeko agindu duen arren, gerrillariek bost hamarkadaz zutik iraun dutela ospatu eta garaipena lortuko dutela nabarmentzen dute kanpamenduetatik.

Filipinetako mendiarteko ezkutuko bailara malkartsu batean babestuta, bizitza iraultzaren aldeko borrokari eskaini dioten 30 lagun bizi dira. Herriaren Armada Berriko kideak dira, Asiako gerrilla komunista zaharrena. Duela gutxi bete zen mende erdia gerrilla Filipinetako Gobernuaren aurka altxatu zela.

Lau orduko ibilaldi akigarria –bi baino ez trebatutako gerrillarientzat– beharrezkoa da "Melito Glor" komandoaren kanpamendura heltzeko, errека, lokatz, palma hosto lehor eta eroritako kokoen artean. Kalabarzonen, Luzon uharteko hegoaldean, «Estatu zapaltzailearen kontra» borrokatzen dute gerrillariek.

Iluntzean iritsi behar da kanpamentura, gaueko iluntasunaren babesean, isilik eta ilaran, betiere matxino fusildunen zaintzapean. Linternak beti lurrera begira eraman behar dira, oztopoz betatako bidea argitzeko ikusiak izan gabe. Kanpamenduaren egungo kokapena behin-behinekoa da. Segurtasun arrazoiak tarteko, gerrillariak ez dira denbora asko geratzen leku berean. Gerrillako bizitzaren arauak argiak dira: beti mugitzen, beti erne.

Goizaldeko lauretan kementsu esnatzen da egunero *ka*Kathryn, hau da, Kathryn kamarada. «Etsaiak erasoa jo dezakeen ordua da eta denok zutik egon behar dugu», azaldu du 26 urteko gerrillari tagaloak. Hiru orduko txandetan egiten dute lo. Batzuk zaintza lanetan aritzen diren bitartean, gainontzekoek banbuz eta palmaz egindako etxoletan atseden hartzen dute. Hamaka batzuk egon badaude, baina ez guztientzat eta txandaka erabiltzen dituzte. Gehienak lurrean daude lo.

«Familia handi bat gara, denok elkar laguntzen dugu», dio Kathrynek gosaria prestatzen duen bitartean: arroz zuria eta txerri haragia. Menu bera errepikatzen da bazkarian eta afarian.

Gaurkoan, kanpamenduko errutina apurtu egin da. Entrenamendu eta diziplina militarrak jai giro lasaiago bati utzi diote tokia. Gerrillaren 50. urteurrena ospatzen ari dira. Legez kanpo utzitako Filipinetako Alderdi Komunistaren atal armatua, Herriaren Armada Berria, 1969ko martxoaren 29an jaio zen eta hainbat egunetako ospakizun ekitaldiak antolatu dituzte gerrillariek.

Antzerki lanak, herri musika kontzertuak, hitzaldiak, arma ikuskatzeak, fusilekin egindako malabarismo erakustaldiak, eroritakoei omenaldiak... antolatu ditu gerrillak Filipi-

UWSA gerrillako emakumeen pelotoia. YE AUNG THU I AFP

WA GERRILLAREN INDAR ERAKUSTALDIA

Myanmarko gerrillarik ahaltsuenak, Wa Estatuko Armada Batuak (UWSA ingelesez), indar erakustaldia eginez ospatu du bere 30. urteurrena. Pentsa, gerrillak parada militar handi bat ere egin du Wa Estatuko Pangshang hiriburuan, Myanmar iparraldean, Txinako mugaren ondoan. Belgikako tamainako lurraldea da gerrillariek kontrolpean duten Wa Estatua.

Uneotan 25.000 soldadu ditu gerrillak eta beste 15.000 ere baditu erreserban. Desfilean emakume pelotoi batek eta frankotiratzaileen unitateak hartu zuten parte. Soldaduak ez ezik, artilleria astuna, ibilgailu blindatuak, droneak eta Gobernu birmaniarraren kontra borrokatzen duten beste erakunde armatuek ametsetan ere ez dituzten armak bildu zituen gerrillak desfilean.

Duela gutxi arte UWSAk isilpean izan ditu bere baliabide oparoak, baina, iragan apirilaren 17an, kazetariak eta diplomatikoak gonbidatu zituen lehendabiziko aldiz bere 30. urteurrenaren ospakizunetara, Thein Swe Myanmarko Lan, Immigrazio eta Populazio mi-

netako lurralde osoan barna hedatuta dituen ehun fronte baino gehiagotan. Milaka borrokalarik iraultzak bizirik dirauela ospatzen dute.

Rodrigo Duterteren Gobernuaren arabera, 6.000 gerrillari dira. Gerrillaren beraren esanetan, berriz, «askoz gehiago». «Egoera berdina da, ez da ezer aldatu. Pribatizazioek eta politika neoliberalek herriak baliabideak galtzea eragin dute, inperialismoari emateko, bereziki AEBei. Duterteren erregimena herria mundu kapitalistari oparitzen ari da, Txinari eta Japoniari tartean», salatu du Kathrynek.

2013an sartu zen Herriaren Armada Berrian Kathryn, unibertsitatean graduatu ondoren. Unibertsitatean murgildu zen aktibismo militantean. Matrikulen garestitzearen aurka protesta egin zuen, eta, aitak lana galdu zuenean, borrokaren ezinbestekotasunaz jabetu zen.

Gerrillari gazte bat, Filipinetako mendietako kanpamendu batean.
Noel CELIS | AFP

Kathrynen aitak Gobernuak pribatizatutako lantegi batean lan egiten zuen. Lana galdu ez zuen bakarrenetarikoa izan zen, baina jardunaldia luzatu zioten soldata igo gabe. Sindikatu batera jo zuenean, kaleratu egin zuten. «Hasieran familiak ez zuen nahi ni gerrillan sartzea. Baina aitarekin hitz egin nuen azken aldian etxera ez itzultzeko esan zidan, justizia lortzeko itxaropen bakarra nintzela», azaldu du harro. Herriaren Armada Berriak, Kathrynen esanetan, ez die inolako dirusaririk ematen gerrillariei: «Gure betebeharra bizitza ematea dela uste dugulako gaude gerrillan, herria aldatu eta ditugun printzipioak defendatzeko». Hala ere, "eskualde gorrietan" lan egiten duten erakundeek diotenez, gerrillak hilean 300 dolar ordaintzen dizkie bertako kideei, batez ere langile eta nekazari pobreei.

Dirua lortzeko ustez zerga iraultzailea ezartzeagatik, "terrorista" izendatu du Herriaren Armada Berria Gobernuak, Europar Batasunak eta AEBek egin bezala. Gerrillak, aitzitik, jarraitzaileen eta kide dituzten nazioarteko erakundeen laguntzen bidez lortzen duela finantzazioa esaten du.

Jarraitzaileek arropa, janaria, sukaldeko oinarrizko tresnak eta etxolak eraikitzeko tresnak ematen dizkiete gerrillariei. Gerrillan bizitza latza bada ere, ez diote modernitateari uko egiten: goi agintariek azken belaunaldiko sakelakoak eta Apple ordenagailuak dituzte, baita satelite bidezko konexioa ere.

nistroa eta Txinako Atzerri Ministerioko goi kargu bat barne. Gerrillak kontrolpean duen lurraldetik milaka wa ere joan ziren.

Antolatutako desfilearekin UWSAk bete nahi zuen helburu argia zen: Myanmarko Gobernuari eta herrialdeko beste milaka etniei wa herriaren eta bere mugimendu armatuaren boterea erakustea.

Wa herria Myanmarko iparralde menditsuan bizi da. Luzaro atzeratutzat jotako herriak beti mantendu du egitez bere independentzia, baita Britaniar Inperioaren dominazio garaian ere. 1947an hurrengo urtean indarrean sartzekoa zen Myanmar independenteko konstituzioaz galdetu zietenean, honakoa erantzun zuten wa herriko buruek: «Ez dugu horretan pentsatu ere egin, basatiak garelako».

Birmaniako Alderdi Komunistaren CPB gerrillaren errautsetatik sortu zen UWSA. Hainbat urtez CPB izan zen wa lurraldea kontrolpean izan zuena, baina, behin gerrilla komunista desagertzear zela, 1989ko apirilean, wa etniako gerrillariek armak hartu eta armada berria osatu zuten. Urte horretan bertan su-etena negoziatu zuten Myanmarko Gobernuarekin.

Ordutik, eskualde autonomoa izatea lortu dute, betiere Txinaren babesarekin. Egun Wa Estatutan bizi diren 600.000 pertsonak «euren

UWSA gerrillak estatu independente bat bezala gobernatzen du Wa Estatua. Txinaren begietan bere atzeko patioa da eta, babes horri esker, ez du arazo handirik izan sendotzeko



Bao Youxiang, UWSAko burua, Pangshang hiriko desfilean. YE AUNG THU I AFP

Iraganean Txina edo Vietnamgo alderdi komunisten babesa izan zuen Herriaren Armada Berriak, baina egun «praktikan kapitalistak» diren herriak gaitzesten ditu gerrillak. Asiako herriotan emandako marxismo-leninismoaren zein maoismoaren «errebisionismoa» salatzen dute. «Ez da komunismoa, ideologia bezala, porrot egun duena. Marxismoaren errebisionismo sistematikoak egin du porrot», dio 25 urteko *ka* Anse gerrillarik.

Herriaren Armada Berriko gerrillarien hiru laurdenak 35 urte baino gutxiago dituzte, Kathrynek edo Ansek bezala. Nekazari esparru pobreetan diskurtso iraultzailea sakon errotuta dagoela erakusten du horrek. «Gerrillan bizitza gogorra da, baina zoriontsua naiz herria zerbitzatzeak zapalkuntzarik gabeko gizarte libre bat eraikitzen laguntzen duelako», adierazi du Ansek.

Filipinetako Herriaren Armada Berriko emakume gerrillariak, entrenamendu batean. Noel CELIS | AFP

Historian graduatu ondoren sartu zen gerrillan. Ansen familia nekazariak ez zuen begi onez ikusi erabakia. «Bizitza hobea izateko irtenbidea borrokatzea dela esan nien, lurra gureganatu eta ondorengo belaunaldientzat etorkizun hobea izateko», dio. Gurasoak eta aiton-amonak errentariak dira, lantzen dituzten eremuak lur jabe handi batenak baitira.

Iraultzan maitasuna aurkitu zuen Ansek. Emaztea haurdun du, eta, horregatik, «beste kanpamendu batera bidali» dute. «Espero dut nire semeak desio dugun gizarte berria ikusi ahal izatea. Baikorra naiz. Horregatik nago hemen».

«Txikitatik nekien zer zen iraultza. Horregatik, 2017an unibertsitatea bukatu nuenean, herriaren zerbitzura jarri nintzen», adierazi du *ka* Isayk, gerrillako bi buru garrantzitsuren alaba. Kameraren aurrean aurpegia ezkutatu du, Poliziak ez duelako fitxatuta.

Ka Jone 34 urterekin sartu zen gerrillan, AEBetako multinazional baten lantegian etengabeko lanaldietan etxetresnak egiteaz nekatuta. «Hemen egoteak ez du parekorik. Ibilaldi luzeak egitea, gosea edo hotza merezi duten sakrifizioak dira herrikideei laguntzeko bada. Hiltzeko prest nago».

"Melito Glor" komandoaren burua Jaime Padilla da, *ka* Diego. 72 urte ditu eta 47 daramatza gerrillan. «Amaiera arte» jarraituko du borrokan. «Aktibista arrunta nintzen, baina Ferdinand Marcosek 1972an gerra legeak ezartzean gerrillarekin bat egin nuen, zer gertatuko zen jakin gabe», gogoratzen du irribarretsu. *Ka* Diego oraindik hunkitu egiten da "Internazionala" entzutean.

etorkizunaren jabe dira», Bao Youxiang UWSAko buruak ospakizunetan adierazi zuenez. Myanmarko 2018ko konstituzioak ere onartzen du wa herriaren «administrazio barruti autonomoa». Berez, UWSAk estatu independente bat bezala gobernatu du lurraldea.

Askotan Hezbollah talde xiitarekin alderatu dute wa gerrilla. Libanoko taldearen atzean Iran badago, Txina da wa matxinatuak babesten dituena, armak eta entrenamenduak emanez. Txinaren begietan, gerrillak kontrolatzen duen Myanmarko eskualdea bere atzeko patioa da. Bertako moneta ofiziala ere yuana da. Babes boteretsu horri esker, mugimenduak ez du arazorik izan sendotzeko. Myanmarko beste lurraldeetan, berriz, Gobernuak hainbat talde matxinaturen kontra borrokatzen du.

«Azken hamarkadetan ez dugu gatazkarik izan eta horri esker garapen handia izan dugu azken 30 urteotan. Baina prest egon behar dugu beti», adierazi zuen desfilean UWSAko ofizial batek.

Autonomiari esker, garapen ekonomiko handia izan du wa herriak. Besteak beste, munduko eztainu meategi handienetako bat eta kautxusoro erraldoiak ditu kontrolpean. Hori bai, wa herriaren oparotasun iturri nagusietakoa droga merkataritza izan da, batez ere 90eko hamarkadan Myanmar munduko heroina ekoizle nagusia zenean. Ondoren, metanfetamina ekoizteko erabili zituzten droga laborategiak. AEBek narkotrafikatzaileen zerrendan ere sartu zuten UWSA.

Hala ere, azken urteotan, batez ere 2011n Myanmarko erregimen militarrak zenbait aldaketa onartu zituenetik, UWSA bere irudia hobetzen

UWSAko buruzagi Bao Youxiang, Txinako Atzerri Ministerioko ordezkariarekin. YE AUNG THU I AFP

«Gerrillan bizitza gogorra da, baina zoriontsua naiz zapalkuntzarik gabeko gizarte libre bat eraikitzen laguntzen ari naizelako»

Rodrigo Duterteren Gobernuaren arabera, 6.000 gerrillari ditu Herriaren Armada Berriak. Gerrillaren esanetan, berriz, «askoz gehiago»

Gerrillariak formazioan, Sierra Madre mendikatean. Noel CELIS I AFP

AEBetako okupaziotik edo Markosen diktaduratik Filipinetan ez dela deus aldatu dio. «Jende gehienak zapalduta jarraitzen du, pobre izaten».

Borrokan familia ere osatu zuen *ka* Diegok. 1986an beste matxino batekin ezkondu zen –2015ean hil zen minbizi baten ondorioz– eta seme bat izan zuen. Semeak mugimendutik urruntzea eta «bizitza normala» egitea erabaki du.

Borrokan emandako ia bost hamarkadetan, Filipinetan izandako «gobernu erreakzionarioekin» izandako bake prozesuen lekukoa izan da *ka* Diego. Duterteren abiatutako azken negoziazioak behin betiko apurtu berri dira eta Gobernuak Herriaren Armada Berriarekin «aurten bertan amaitzea» agindu du. «Indar iraultzaileak bakea negoziatzeko prest gaude, baina baita Gobernu faxistaren aurka borrokatzeko ere», ohartarazi du *ka* Diegok, herriaren gehiengoaren babesarekin, gerrillak bizi-raungo duela eta sistema garaituko duela konbentzituta.

Urruneko beste kanpamentu batean, Qezon probintzian, *ka* Cleo, 36 urtekoa, eta *ka* Wenli, 40 urtekoa, elkarrekin bizi dira. Zoriontsu dira mendian eta 9 urteko semea dute. «Gerrillan sartu nintzen gure gizartearen bidegabeko baldintzak pairatzen nituelako. Koko ekoizlea nintzen, koko olioa saltzen nuen, baina dirua inoiz ez zen bizitzeko nahiko», azaldu du 2001etik gerrillaria den Wenlik. 2006tik gerrillaria den Cleo emazteak herriaren aldetik jasotzen duten sostengua nabarmendu du. «Badakite ez garela terroristak, komunitateen alde egiten dugula guztia, kartzela edo heriotza arriskatuz. Herriaren alde sakrifikatzen jarraituko dugu, orain 'terrorismoa' zigortzen duten zigor gogorragoei aurre egin beharko badiegu ere».

Luzaroan droga merkataritzan aritu izanaren itzala izan du gainean UWSAk, baita ume soldaduak errekrutatzearena. Azkenaldian, baina, bere irudia garbitzen saiatzen ari da

saiatu da. Droga ekoizpenaren aurka egin eta landaketak kautxurantz bideratzen ari da, betiere txinatar inbertsoreen laguntzaz. «Ez dugu berriro onartuko gure lurretan opio landaketak izatea», nabarmendu zuen Bao Youxiangek Pangshangeko desfilean. Armadaren, alderdiaren eta Gobernuaren burua da Bao, «eta kargu horietan guztietan bizitza osorako berretsi berri dute», Anthony Davis analistak azpimarratu bezala.

Drogaren aurkako ustezko borroka gorabehera, Wa Estatuko hiriburuan, kasino eta burdel ugari eta babestutako espezien organoak saltzen dituzten merkatu ugari daude. «Bost hilabete eman ditugu tentsio betean. Wa agintariak drogazaleak atxilotzen aritu da eta asko kartzelan daude. Gero konturatu ginen kanpotar asko etorriko zirela urteurrenera eta kaleak 'garbitzen' ari zirela», adierazi du Myanmarko etorkin batek.

Beste itzal bat ere badago wa gerrillaren gainean: ume soldaduak errekrutatzea. Urteurrena ospatzeko desfilean parte hartu zutenetako asko ere adin txikikoak ziren. «18 urte baino gehiagoko soldaduak baino ez ditugu onartzen, baina txikiak direnetik entrenatzen ditugu, eta, gero, adinez nagusi direnean, armadan sartzen dira», Nyi Paluak UWSAko ofizialaren arabera. «13 urte nituela egin nintzen soldadu. Nire anaia txikiena ere soldadua da», onartu du, berriz, egun 32 urte dituen UWSAko kide batek.

Wa gerrillak estatu baten pareko ekitaldia antolatu zuen. YE AUNG THU I AFP

Gatazka etniko ugari bizi izan dituen Myanmarren, wa herriko ordezkariek ere parte hartu zuten Gobernuaren eta hainbat talde matxinoren arteko bake elkarrizketetan. Azkenean, baina, prozesua bertan behera geratu zen, su etenik nazionalik lortu gabe.

ARAMERA

Jesukristoren ama hizkuntza bera ere suntsitu du Siriako gatazkak

JENDARTEA / Maher AL MOUNES (Afp)

«Aramera arrisku bizian dago». Siriako 62 urteko espezialista baten diagnostiko negargarria da, orain zortzi urte herrialdean hasitako gatazkek eragindako txikizioaren ezinbesteko lekukotasuna. «Gauzak aldatzen ez badira, hemendik bost edo hamar urtera desagertu egingo da», nabarmendu du George Zaarur irakasle siriarrak.

Liburu baten gainean makurtuta, George Zaarur irakaslea arameraz idatzitako testuak irakurtzen harrapatu dugu, lupa baten laguntzarekin. Jesukristok berak erabiltzen omen zuen hizkuntza aztertu duten espezialista siriar gutxietako bat da, Malula bere herrian aramera entzutea gero eta zailagoa dela dioen begirale konprometitua.

«Aramera arrisku bizian dago. Gauzak aldatzen ez badira, hemendik bost edo hamar urtera desagertu egingo da», azaldu dio kezkatuta France Presse agentziari aditu buruzuriak. Ondo irabazitako zimurrek apaintzen dute bere aurpegia.

Denda txiki bat du Zaarurek irudi erlijiosoak, gurutzeak eta etxeko produktuak saltzeko. Bertan ditu arameraz idatzitako obra eta entziklopedia batzuk ere. Denbora asko egiten du liburu horiek ikertzen eta itzultzen. Hizkuntza semitiko horren lehenengo lanak Kristo aurreko hamargarren mendekoak dira.

Hiztunak, edadekoak

Gaur egun 445.000 lagunek erabiltzen dute aramera Azerbaijanen, Iraken, Iranen, Georgian, Libanon, Errusian, Sirian, Israelen, Palestinan eta Turkian, baina inon ez diote eman hizkuntza ofizialaren kategoriarik. Malulan bertan, «biztanleen %80k ez dakite arameraz eta gainerako %20tik gehienek 60 urte baino gehia-

Goiko irudian, George Zaarur irakaslea lupa batekin lanean, bere dendan. Behekoetan, Malulako eliza bateko kanpoko aldea, barruko ondasunak eta ikasleak.
Louai BESHARA | AFP





go dituzte jada», irakasleak emandako datuen arabera.

Damasko Siriako hiriburuko eskualdean kristautasunak duen presentziaren ikur bat da Malula. Qalamun mendikate harritsuko aldapetan milaka lagun bizi dira, hiriburutik 60 kilometrora, iparraldean. Garai batean, gerrak gauza guztiak

suntsitu arte, turista eta erromes asko joaten ziren bertara: aramera kalean bizirik entzuteko aukera izaten zuten, eraikin erlijioso batzuk bisitatzekoa izateaz gain. 2011n hasitako gerrak dena aldatu du.

Baxar al-Assaden erregimenaren aurkako matxinoek eta Al-Qaeda sarearekin lotura zuten jihadistek bereganatu zuten Malula 2013ko azken egunetan. Hamahiru moja bahitu zituzten (handik hiru hilabetera askatuko zituzten). 2014ko apirilean Gobernuaren aldeko tropek hartu zuten herria. Malulak 6.000 inguru biztanle zituen orduan, baina gehienek ihes egin zuten gerraren eraginez, eta 2.000 baino ez dira bueltatu. Gainerakoak Damaskon eta inguruetan, atzerrian edo atzerriko bidean dira.

«Gerraren belaunaldiak Malulatik kanpo jaio dira, Damaskon edo beste eskualderen batean, eta ikasi duten lehen gauza arabiera izan da», Zaarurek azaldu duenez. Berak 30en bat obra idatzi ditu eta Damaskon aramerari buruzko zenbait doktore-tesi gainbegiratu ditu. Hizkuntzari eutsi nahian, 2006an arameraz ikasteko zentro baten sorreran esku hartu zuen Malulan bertan. Instalazio haiek ere itxi zituen gerrak. Orain irakasleak testu zaharrak itzultzen pasatzen du eguna.

Ezaguera sakona

Elias Thalab alkateak goraipamen ugari ditu espezialistarentzat: «Siria osoan dagoen aramerari buruzko irakasle eta espezialista bakarra izango da. Badaude hizkuntza ikasten ari diren irakasle gazteak, baina Zaarur da ezaguera sakona duen bakarra».

«Azken 2.000tik gora urtetan, Jesukristoren hizkuntza geure bihotzetan gorde dugu, Lurrean hizkuntza hori menderatzen dugun azkenetakoak gara», adierazi du 80 urteko alkateak. Malula herriaren izenak "sarrera" esan nahi du arameraz. Hizkuntzari eusten dioten Damasko inguruko hiru herrietako ezagunena da Malula. Turkian eta Irakeko iparraldean ere arameraren dialektoak erabiltzen dira, Jean-Baptiste Yon frantses adituak jakiarazi duenez. Bere adierazpenen arabera, «Mesopotamia, Siria, Judea eta Palestinan herritarrek hizkuntza bera erabiltzen zuten».

Malulan bertan Siriako beste eskualdetan baino txikizio gutxiago izan bada ere, harriz egindako elizetan eta monasterioetan kalteak eragin zituen artilleriak. Irudiak suntsitu egin dituzte, lapurtu ez dituztenean. Geroztik zaharberritu behar izan dituzte. San Sergio monasterioko kaperan, esaterako, marmol zuriz egindako aldarearen gainean jarritako urre-koloreko argimutil berriak ikus daitezke. Baina teilatu lauko eta teila gorriko etxe gehienak huts-hutsik daude oraindik.

Administrazioak jakinarazi du herriko haur-eskola bakarrak 100en bat ume zituela 2010ean, eta 30 baino gutxiago egun. Paretak umeek egindako marrazkiekin apainduta dituen gela batean, bost eta sei urteko umeek aramerazko olerkiak errezitatzen dituzte. «Aramera Malulan belaunaldiz belaunaldi transmititzen da: semeak aitarengandik ikasten du, eta aitak aitonarengandik. Etxeko hizkuntza da», esplikatu du Antoinette Mokh irakasleak: «Baina ume hauek Malulatik kanpo jaio dira, erbestean egindako urteetan».

info+

• Aramerari buruzko artikulua, euskarazko Wikipedian:
https://eu.wikipedia.org/wiki/Aramera

• Malula herriari buruzko artikulua, ingelesezko Wikipedian:
https://en.wikipedia.org/wiki/Maaloula

Ula Iruretagoiena Busturia - @ulissima5
Arkitektoa

Lurraldeko arkitektura

Arkitektura. Hitz arrotza diziplinatik at dagoen gehiengoarentzat. Ohiko hizkuntzan arkitektura adiera erabiltzen da elementu baten egitura logiko eta fisikoarekin lotuta, hau da, arkitektura errealitate fisiko bati loturiko argudio jarioen antolaketarekin lotzen da. Baina errealitate fisikoaren arkitekturaz ari garenean, askoren ulerpena ez da materialtasunaren atzetik egon daitezkeen pentsamendu geruzetara zuzentzen, baizik eta begi aurrean dagoenaren itxurara. Arkitektura, gustu afera hutsera sinplifikatuz. Atarian gelditzeko ohiturak sakonean dagoena adituen esparruan kokatzeko joerari jarraitzen dio –ulertezina zaigulakoan–. Arkitekturarekiko eraikitako ulergaitasunak, filosofiarekin gertatzen den tankeran, talka egiten du eguneroko bizitzak jakintzokin duen harreman estuarekin. Izan ere, arkitekturan bizi gara eta arkitekturaz inguraturik gara. Bizimoduaz eta bizi ditugun espazioez hausnartuko bagenu, bi jakintzotara hurbiltzen saiatuko ginateke, estereotipoen armadura zeharkatuz eta ohikotasunaren lengoaiara gerturatuz.

Hala eta guztiz ere, ez da guztiz egia arkitekturaren eta gizartearen artean jakintza arloa dagoenik. Arkitekturaren materialtasunak iruditeria bat eraikitzen du lurraldetasunarekin estuki lotuta dagoena, memoria-edukiontzi eta adierazkortasun kolektiborako tresna gisa funtzionatzen duelako. Arkitektooi deigarri gertatzen zaigu zeinen arketipo materiko eta formal boteretsuak dauden jakintza arlotik kanpo, adibidez, etxe batek nolakoa izan behar duen galdetuz gero –intimoki espazioarekin erlazio bat eraikitzeko garaian–. Askotan, iraganeko arkitekturaren iruditeria nagusitzen da, inguruan "benetako" arkitekturarik eraikiko ez balitz bezala. Arkitekturaren erreferentzi edo eredu gisa gaur eguneko gizartearen bizimodutik urruti gelditzen den bat aukeratzean, lurraldea osatzen duen arkitektura gehienarekiko onarpen eskasa adierazten da eta desfase kultural bat uzten da agerian. Zergatik lurraldetasunaren arkitektura harriarekin lotzen da eta ez txapa metaliko zulatuarekin?

Lurraldeko arkitektura hirietan eta hirietatik kanpo dagoen orok osatzen du. Landa eremuetan dauden oilategi erraldoien nabe industrialetatik eta ortu ondoan autoeraikitako txaboletatik hasi eta baseliza, baserri multzo eta babes ofizialeko etxe dorreetara arte. Paisaia materiko horretan iragan hurbileko eta urrutiko garaietako eraikuntzak daude; denek osatzen dute gizarte baten materialtasuna. Iragan gertuko eraikuntza gutxik lortzen dute iruditeria kolektiboaren parte izatea, denborak materiari onartze-maila eskainiko balio bezala. Paisaia materikoan, elkarrekin daude azkar eta merke eraikitzeak ezaugarritzen dituen eraikinak eta adierazkortasun ariketa gisa sortzen direnak. Itxuraren zainketaren hierarkiak gizartearen lehentasunak mahai gainean jartzen ditu; horren adibide da landa eremuko eraikin berrietan zeinen kariño gutxi jartzen den hirietakoekin alderatuta. Erabaki inuzentea ez delako, lurraldetasunaren eraikuntzan lurraldearen arkitekturan erreparatzeko deia izan nahi dute hitzok. •

Ilustrazioa: ULA IRURETAGOIENA BUSTURIA

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

Hiriak eta herriak, gobernuak eta oposizioak

Duela astebete alkate guztiak izendatuta, hurrengo lau urteetarako udal mapa osatuta geratu da Euskal Herrian, eta alderdien araberakoa izan da orain arteko irakurketa: agintea nork non eta norekin eskuratu duen. Atera den mosaikoa irakurtzeko beste aldagai batzuk badira, ordea. Esaterako, populazioaren ikuspegia. Izan ere, EH Bilduk beste edozein alderdik baina zinegotzi gehiago baditu ere, EAEn EAJko alkatea duten herritarrak %80 inguru dira.

Hirien eta herrien arteko aldea zertxobait handiagotu egin da, PSNren laguntza estimagarriarekin Navarra Sumak EH Bilduri kendutako Iruñeko alkatetzaren dantzarekin. Boz guztiak kontuan harturik eskuina eta ezkerra pareko diren arren, hiri handiei soilik begiratuz gero parekotasunik ez da: Hego Euskal Herriko hamabi hiri handienetatik, zazpitan EAJk du aginte makila (Bilbo, Gasteiz, Donostia, Barakaldo, Getxo, Santurtzi eta Basauri), bitan Nafarroako eskuin espainiarzaleak (Iruñea eta Tutera), beste bitan PSEk (Irun eta Portugalete) eta bakar batean EH Bilduk (Errenteria). Txanponaren beste aldea honakoa da: ezkerreko independentismoa erraz ari da aurrera egiten hiri ertainetan eta herrietan, bai eta tradizioz oso ezkerreko edo oso independentista ez direnetan ere. Nafarroari erreparatuta, zinez adierazgarria da aurreko larunbatera heldu beharra izan gabe ere, jada EH Bilduk hamabost alkate izan bazituela (M26an hautagaitza bakarra berea izan baitzen), eta horien artean Agoitz agertzea esaterako (bai, Javier Esparza UPNko presidentea 1999tik 2007ra alkate izan zuen herri berbera).

Azken adibide horrek agerian uzten duenez, toki bakoitzaren historiaren inertziak indarra izan dezake, baina alderdien eta hautetsien jardunak ere asko baldintzatzen du, onerako ala txarrerako. Horretaz hausnarketa egingo dute batzuek zein besteek. Esaterako, ukaezina dirudi eskuineko indarren eskaintza (EAJ eta Navarra Suma) gero eta arrotzagoa zaiela herri eta hiri ertainetako biztanleei, agian horietan oraindik ere nagusi diren baloreak komunitarioak direlako, auzolanari eta elkarri begietara begiratzeari lotuak. Hirietan, aldiz, errazago zaio eskuinari indibidualismoan, arduragabekeria politikoan eta ezberdin denaren aurkako beldurrean (etorkina, euskalduna, txiroa...) bozak harrapatzea.

Bestalde, hemendik aurrerako agertokia motz gelditzen da soilik aginte makilei begiratuz gero. Eskuin-ezker borroka horretan herri-hiri aldagaiak garrantzia badu ere, gobernu-oposizio ardatza ere gero eta malguagoa da. Zatiketaren poderioz, gehiengo osoz kudeatuko diren udalerriak ez dira asko, eta oposiziotik eragiteko aukerak handiak dira han-hemenka.

> Hausnarketa egin beharko dute batzuek zein besteek, tokian toki dituzten indargune eta ahulguneez. Baina egoera iraultzeko aukerak ere izango dituzte

Denborak garai hori lurperatu egin duela ematen badu ere, Nafarroan 2015ean gertatu zen irauliaren erroak Yolanda Barcinak Gobernuan eta Enrique Mayak Iruñeko Udalean zuten ahulezian sustraitu zela gogoratu daiteke. Lau urtez aurrekontu bakar bat ere aurrera atera ezinean ibili zen orain berriz ere alkate den Maya, eta Barcinak Auzitegi Konstituzionala hartu behar izan zuen adiskide, Nafarroako Legebiltzarraren gehiengoak Gobernuaren aurka onartzen zituen lege aurrerakoi guztiak bete gabe uzteko. Orain ez daude hobeto. Gaur egun politikak –eta bizitzak– berezko duen abiadura handian, lau urteko zikloak askorako emango du. Eta asmatuz gero, gaur galtzaile gisa ageri direnak laster egon daitezke tortillari bueltako emateko tenorean, zartagina eskuetan. •

URUNDIRUA

Gasteizko hiriak bere jurisdikzioko nekazariei ezarritako zerga «gorrotagarria»

HISTORIA / Xabier Izaga Gonzalez

Gasteizko hiriak bere jurisdikzioan bizi ziren nekazariei, haien emazteei, zazpi urtetik gorako seme-alabei eta haien etxean bizi ziren guztiei zerga bat ordainarazten zien: urundirua. Hala azaldu zuen aspaldi Jose Ramon Diaz de Durana irakasleak. Orain, dokumentazio ugari aztertu ondoren, liburu bat argitaratu du EHUren eskutik.

XV. mendean Gasteizko hiriak bere jurisdikzioko herrixketako nekazariei zerga bat ezarri zien: urundirua. 1420tik 1760era bitartean egon zen indarrean. Euskal hiztunek, bereziki mendebaldekoek, badakite zer den "urun" eta zer "diru"; beraz, erraz pentsa zitekeen irinarekin zerikusia zuen zerga zela. Hala ere, haren inguruko ikerketak egin dituzten historialari gehienek zerga horrek XVI. mendearen amaieran hartu zuen izendapena baino ez zuten ezagutzen: "irundiru".

Irinaren gaineko zerga

1998an, Jose Ramon Diaz de Durana Ortiz de Urbina Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak "Urundiru, que queryan desir dinerdo de harina. Acerca de una imposición medieval de la ciudad de Vitoria sobre los labradores de las aldeas de su jurisdicción" izeneko artikulu argigarri askoa argitaratu zuen "Sancho el Sabio" aldizkarian, Valladolideko Kantzelaritzan eta Gasteizko Udal Artxiboan dagoen epai betearazle baten berri emateko. 1513ko ebazpenean zergaren jatorrizko izena eta zergaren izaera ageri ziren.

Orain, hogei urte geroago, dokumentu hura eta beste hainbat aztertuta, "Urundiru. El dinero de la harina de las almas muertas de Vitoria" liburua argitaratu du, EHUko Argitalpen Zerbitzuaren eskutik. Dokumentazio guztia bilduta, ikuspegi orokor bat eman dio zerga haren historiari: historialariek urundiruaren inguruan esan dutena, mende haietako nekazarien eta hiriaren arteko harremanak, nekazarien eta kapareen antolakuntza, antzeko zergak non ezarri zituzten eta beste hainbat gai interesgarri jorratu ditu.

Liburua nolabait istorio pertsonala dela dio ikerlari arabarrak: «Betidanik Arabaren eta Gasteizen gaineko lanak egin izan ditut. Beste leku askoren gainean ere bai, baina nire ikerketen hasierako muina beti Gasteiz eta Araba izan dira».

Esan beharra dago Diaz de Duranak baino lehen gaiaz idatzi zutenak ez zeudela guztiz oker. Odon Apraiz historialari eta euskaltzainak 1929an "Heraldo Alaves" egunkarian irundiru delakoaren gainean idatzi zuen artikulu batean udal zerga batekin lotu zuen. Berdintsu iritzi zion Alfonso Otazuk ere 1974an, "Las almas muertas de Vitoria" artikuluan, Gabriel Arestiri iritzia eskatuta. Baina ondorio horretara abiapuntu okerretik iritsi ziren; ez euren erruz, baina. Valladoliden aurkitutako epaile betearazle hori Gasteizko Udal Artxiboan ere egon behar zuela uste zuen Diaz de Duranak, eta arrazoi zuen. Baina katalogazio hutsegite bat zela-eta 1990 arte ez zen eskuragarri egon, harik eta datu-basea berrikustean horretaz konturatu ziren arte. Valladolideko Errege Kantzelaritzako Artxiboko dokumentazioa, berriz, eskuragarri zegoen; edonola ere, oso zaila zen aurkitzea.

Zergaren jatorrizko izenak berak ("*hurundiru*", 1484an) za-



Jose Ramon Diaz de Durana Ortiz de Urbina, EHUko Letren Fakultateko bere bulegoan. Hurrengo orrialdean, 1513an Valladolideko Errege kantzelaritzak Gasteizko hiriaren alde emandako epai betearazlea. Jaizki FONTANEDA | FOKU - GAUR8

lantza gutxirako tartea uzten du. "Urun" *a*ldaera guztiz nagusi da gaur egun mendebaldeko euskaran, Bilbotik Oñatira eta Orozkotik Eibarrera. Aspaldi dago dokumentatuta, gainera. 1596an Iruñean argitaratutako "Refranes y Sentencias" errefrau bilduman, esaterako, *"Hurunik eztan etsea, ezin lizate asea, ta bai gosea"* ageri da.

Gatazka iturri

Urundirua, beraz, gari eta irin kontsumoari ezarritako zerga zen, baina ez ohikoa. Gasteizko hiriak harresiaren barruan bizi zirenei pisu publikoan irina pisatzen zuten aldiro diru kopuru bat ordainarazten zien, eta Gasteizko jurisdikzioko herrixketan bizi ziren nekazariek irina pisatzera eramaten ez zutenez, urundirua ezarri zien, gizonek, emakumeek, zazpi urtetik gorako neska-mutilek eta neskame eta morroiek, azken horiek kapare izanda ere, ordaindu behar zutena. Hiru mende eta erdian pertsonako bost marabedi biltzea izan zen ohikoena.

Zerga hark nekazarien protestak piztu zituen. 1508an, hiriaren aurkako demanda bat ezarri zuten Errege Kantzelaritzan eta epaileek hasieran nekazarien aldeko epaia eman zuten, baina auzia ez zen 1513ra arte amaitu. Urte hartako azaroan, hiriaren aldeko ebazpena eman zuen Kantzelaritzak.

1705era arte iraun zuen irundiruak; hala ere, 1753an, Gasteizko oligarkia XVIII. mendearen lehen erdian ordaindu ez zuten guztiei, biziei eta hilei, kobratzen saiatu zen. Ez zuten lortu, ordea, eta handik urte batzuetara Gaztelako Kontseiluak iraungitzat eman zuen zerga.

Duela 40 urte izan zuen Diaz de Duranak urundiruaren berri, bere irakasle Emiliano Fernandez de Pinedok 1979an, Gasteizko Letren Fakultatea sortu berritan, ikasleei urundiruaz hitz egin zienean. «Egia esateko, berak 'irundiruaz' hitz egin zuen, horrela esaten baitzitzaion zerga indarrean egon zen azken aldian, XVI. mendearen amaieratik edo», dio. Halaber, zerga haren gaineko artikulu bat zegoela esan zien, Alfonso Otazuk 1974an idatzitako "Las almas muertas de Vitoria" izenekoa, hain zuzen, urundiruaren historiaren bukaera kontatzen zuena. Baina gainerakoa ezezaguna zen.

Lekukoen hitzak

Hogeitsu urte geroago, Diaz de Duranak zerga haren izaera deskribatu zuen zehaztasunez. Izan ere, 1997an Valladolideko Kantzelaritzan «zerbait» topatu zuen, «inondik inora espero ez nuen zerbait», dio. Urundiruaren 1508tik 1513ra arteko auziaren gaineko informazioa zen, Valladolideko Errege Kantzelaritzaren epai betearazle bat, Gasteizko hiriak inguruko herrixketako nekazariei irabazi zien auzikoa, hain zuzen.

Auzi hartan lekuko gisa deklaratu zuten nekazariek esaldi ezin argigarriago hau errepikatu zuten: *«Hes verdad que la palabra urundiru es vascuençe, e que en castellano quiere tanto dezir commo 'dinero de harina', porque urun quiere dezir 'arina' e diru quiere dezir 'dinero', e que todo junto, en romançe castellano, es commo si se dixese dinero de harina, e que lo sabe este testigo porque hes vascongado e sabe ansymismo romançe castellano, e que entre todos los vascongados se entiende e es público, notorio ansy»* ('urundiru' euskara da [...] gaztelaniaz irinaren dirua esango balitz bezalakoa, eta lekuko honek euskalduna dela-



Imagen n.º 1

nera página de la carta ejecutoria ganada en 1513 por la ciudad de V
e el *urundiru* que cobraba a los labradores de las aldeas de su jurisd
13, noviembre, 30. Valladolid. AMV, Secc. 8, Leg. 12, n.º 1. Perga
(Archivo Municipal de Vitoria-Gasteiz Pilar Aróstegui)

ko daki eta gaztelaniaz ere badaki, eta euskaldun guztien artean horrela ulertzen da, jakina eta nabarmena da).

«Zerga gorrotagarria»

Ordaintzen hasi zenetik desagertu arte, 1760 aldera, nekazarien haserrea sorrarazi zuen unrundiruak. Koroaren fiskalaren irizpen esanguratsu bat dago zerga horretaz, nekazarien iritziarekin bat datorrena: *«tan odioso y reprovado, que de derecho no se halla que villa ni ciudad, la más distinguida de estos reynos, le tenga sobre los vezinos de las aldeas de su jurisdicción»* (zuzenbidearen arabera ez dago bere eskumeneko herrixketako bizilagunen gainean hain zerga gorrotagarri eta gaitzetsia duen hiririk).

Urundirua zerga bitxia zen, eta Diaz de Duranak hain gorrotagarri egin zuen bitxitasun hori azaldu du: «Gasteizko Udaleko agintari 'maitagarriek' hiriko pisu publikoan irina pisatzeagatik ordainarazi nahi zieten herrixketako nekazariei, baina irina pisatzera eramaten ez zutenez, urteko diru kopuru bat kobratzen zien: bost marabedi laguneko, nekazariaren etxean bizi zen zazpi urtetik gorako lagun bakoitzeko, alegia». Dioenez, kapitazio zerga bihurtu izana zen haren alde ikaragarriena; hau da, lagun bakoitzeko zerga bihurtu izana, aberatsek eta txiroek, helduek eta haurrek berdin ordaindu beharra zeukatena. Horrexek haserretzen bide zuen gehien jendea, «berez ez baitirudi kopuru hura gehiegizkoa zenik».

Umiliazio eta menderatze ikur

Dokumentazioaren arabera, Udalak ezin zuen zerga hura bildu, nekazariek ordaintzeari uko egiten ziotelako; beraz, urtero akuratu egiten zen, normalean 6.000 edo 7.000 marabediren errentan; «izan ere, ez zen oso kopuru garrantzitsua. Bakoitzak ordaindu behar zuena bizpahiru kilo irinek balio zutena izan zitekeen, eta hamar senideko familia batentzat 30 kilo ziren urtean, baina kontua ez zen ordainketa hutsa, baizik eta baita horrek adierazten zuena ere. Esate baterako, nola jakiten da ume batek zazpi urte dituela? Badakigu umeek adin horretan aldatzen dituztela hortzak. Orduan ez zegoen umeen errolda bat, eta zergabiltzaileak, herrixka batera zihoanean, haurrei ahoa irekiarazten zien hortzak begiratzeko, zaldiei bezala, eta horrek sutu egiten zituen nekazariak, normala denez. Umiliazio handia zen haientzat», azaldu du ikerlariak. Udaleko jende hura inguruko lur gehienen jabe zela dio, eta zerga horren arazo nagusia haren sinbolismoa, nolabait herrixken eta hango nekazarien gaineko kontrol eta menperatze ikurra baitzen.



Imagen n.º 2
Portada del «Padrón y lista de todos los labradores vecinos de esta jurisdiçion que deben y pagan el pecho del *urundiru*» (1576). «Después de este padrón se fizo otro por testimonio de Diego de Alegría el año de 1580». Hecho en el mes de mayo del dicho año». AMV, Secc. 8, Leg. 12, n.º 2. Papel (Archivo Municipal de Vitoria-Gasteiz Pilar Aróstegui)

Imagen n.º 3
Página interior (n.º 2) del «Padrón y lista de todos los labradores vecinos de esta jurisdiçion que deben y pagan el pecho del *urundiru*» (1576) en el que figuran los labradores de Armentia que pagaban el tributo. AMV, Secc. 8, Leg. 12, n.º 2. Papel (Archivo Municipal de Vitoria-Gasteiz Pilar Aróstegui)

«Errolda eta urundiru petxa ordaindu behar dutenen zerrendaren» portada eta orrialde bat.
GAUR8

Gasteizko Udaleko jendea inguruko lur gehienen jabea zen, eta zergaren arazo nagusia haren sinbolismoa zen, nekazarien gaineko kontrol eta menperatze ikurra baitzen

1750ean Gasteizko Udala eta oligarkia 1700etik zerga ordaindu ez zuten guztiei ordainarazten saiatu ziren, bai bizirik zeudenei bai hilik zeudenei, «arima hilei», alegia

Gasteizko arima hilak

Alfonso Otazuren "Las almas muertas de Vitoria" artikuluak garrantzi handia izan du Diaz de Duranak urundiruaren gainean egin duen lanean, eta Otazuk berak egin du haren liburuko hitzaurrea. Artikulu hartan gertakari harrigarri baten berri eman zuen: 1750ean Gasteizko Udala eta oligarkia 1700etik zerga ordaindu ez zuten guztiei ordainarazten saiatu ziren, bai bizirik zeudenei bai hildakoei. Diaz de Duranak bere liburuan gogorarazten duenez, Nikolai Vasilievitx Gogolen "Arima hilak" eleberriak iradoki zion Otazuri artikuluaren izenburua. Urundirua atzeraeraginez, «biziei eta hilei», ordainarazi nahi zieten Gasteizko herrixketako bizilagunen eta Gogolen eleberriko jopu errusiarren arteko konparazioa egiten zuen Otazuk. Izan ere, Gogolen obrako jopu errusiar haiek lur jabeen «arimak» ziren, eta bizirik ez ezik, hilik ere eros zitezkeen. Eleberriko protagonista Txitxikov "arima hilak" erosten hasiko da, bere maila sozialean gora egiteko asmoz.

Zerga 1760ean amaitu zen; hala ere, hiriak hainbat trikimailu erabili zituen, batez ere juridikoak, gatazka luzatzeko.

Bere liburuaren epilogoan, Diaz de Duranak dio beste hirietako irinaren pisuaren diruak ez zuela urundiruarekin zerikusirik, batez ere Gaztela eta Aragoiko erresumetako do-

kumentazioa aztertuta, eta erresuma haietan ez du inon antzeko zergarik topatu. Dioenez, Europako hiri guztietan ordaintzen zuten irina pisatzera eramateagatik, baina eramaten zuten bakoitzean baino ez zieten kobratzen. Modu horretan garestiagoa zen nonbait, baina inon ez zen pertsona bakoitzeko zerga bihurtu, bizilagunen maila soziala, adina, sexua eta beste edozein egoera dela ere ordaindu beharrekoa, alegia.

Aintzat hartzeko beste kontu bat zeukan zerga hark. Nekazaririk aberatsenek bazituzten beren zerbitzuko kapareak, eta kapare horiek ere ordaindu behar zuten zerga, nekazarien etxeetan lan egiteagatik. Harrigarria iruditzen zaio Diaz de Duranari. «Baina hala zen».

Salbuespena

Iberiar penintsulako eta Europako hainbat lekutako ikertzaileekin hitz egin ondoren, Italiako iparraldeko zenbait hiritan baino ez zuen antzeko kasurik topatu, «eta Gasteizkoa baino are okerragoak». Italiako leku haietan, bi urtetik gorako haurrek ere ordaindu behar zuten. Eta zerga haren zentzua berbera zen, jakina, «espazioaren kontrola eta espazio horretan bizi zen jendea mendean izateko asmoa».

Gasteizkoa eta Italiako iparraldekoak adibide bat dira, ohiz kanpokoa, baina, Diaz de Duranak dioenez, hirietako jendearen eta jurisdikzioko nekazarien arteko harremanak eta tentsioak islatzen dituena. Nekazari haiek etengabe borrokatzen ziren ordezkapen politiko handiagoa izateko, Udalean parte hartu ahal izateko...

Nekazariak, ondo antolatuta

EHUko irakaslearen ustez, ez da harritzekoa 1508an nekazariek abiatu zuten auzia bost urte geroago galdu izana, hiriak Errege Kantzelaritzara bere pisu politikoa eraman baitzuen: «Nafarroako konkistaren garaian izan zen, eta hiriak konkistaren alde egiten zuela argudiatuta, errazago zuen kantzelaritzaren mesedea lortzea. Hori ez da inongo dokumentutan agertzen, baina badakigu horixe zela testuingurua». Garaipen garrantzitsua izan zen hiriarentzat, horregatik egin zuten epai betearazlearen kopia dotore bat, letra gotikoz idatzitako pergamino bat, Gasteizko armarri eder batez apaindua.

Aretxabaleta, Gasteizko jurisdikzioko nekazariek beren batzarrak egiten hasi ziren herrixka. Gero, ondoko Lasarte herrixkan biltzen hasi ziren.
Juanan RUIZ | FOKU

Nekazariak ere ondo antolatuta zeudela dio Diaz de Duranak. Kapareek Elorriagan erakunde bat zuten bezala, nekazariek ere bazuten beraiena, Lasarteko batzarra. Ikerlari arabarrak idoro zuenez, hasieran Aretxabaletan biltzen ziren, Gasteizko hegoaldeko herrixkan, hain zuzen.

Hiru mende eta erdian auzi gehiago izan ziren zerga hura zela-eta. 1552an, urundiruarekin zerikusia zuten aldarrikapenak ez ezik, politikoak ere eraman zituzten nekazariek auzira. Bizitza publikoan parte hartze handiagoa eskatzen zuten, edo erregeak gerrara deitzen zuenean edo alarde bat zegoenean hirira ate nagusitik sartzen utz ziezaieten. Hiriak eskaera hari ezetz borobila eman zien. Edonola ere, «ondo zekiten zer nahi zuten, batxillerren eta abokatuen aholkularitza ona zuten... Horrek, jakina, dirua balio zuen, zerga bera baino garestiago ateratzen zitzaien, baina kontua da haientzat zerga umiliagarria zela».

EUSKARA, NAGUSI; «DIRUAREN ETA DOKUMENTUEN HIZKUNTZA», GAZTELANIA

1508an hasi zen auzi luze hartan nekazariei egin zizkieten galderak jaso ditu Diaz de Duranak bere liburuan. Lekuko gehienak Gasteizko jurisdikziotik kanpoko herrixketakoak ziren eta, beraz, eurek ez zuten urundirua ordaintzen, baina zerga haren gainean zekitena kontatzen zuten. Galdekatzaileek bilatutako erantzunaren araberakoak ziren galderak; hartara, esate baterako, nekazarien abokatuak galdetzen zien ba al zekiten «'urundiru' hitza euskara dela, gaztelaniaz *dinero de harina* esan nahi duela...». Bilodako lekuko batek, esate baterako, gehienen antzera, erantzun zuen bazekiela zer zen, eta euskalduna zelako zekiela; «euskaldun guztien artean jakina eta nabarmena da *dinero de harina* esan nahi duela», adierazi zuen.

Ez dago zalantzarik garai hartan Araban euskara zela hizkuntza nagusia, baina zenbait testuingurutan gaztelania zen prestigio hizkuntza. Hala dio Diaz de Duranak: «Ditugun datuen arabera, hirian XV. mendearen amaieran eta XVI.aren hasieran euskaraz egiten bazen ere, gero eta gaztelania gehiago egiten zen. Inguruko herrietan, ordea, euskaraz egiten zuten». Auzian izan ziren lekuko batek baino ez zekien euskaraz, eta beste batek gaztelaniaz. Nabarmentzeko modukoa da, gainera, hiru lekukok ez dutela "jakin" aditza erabiltzen gaztelaniaren ezagutzari dagokionez, "ulertu" baizik; «euskara ere badaki», diote, baina «gaztelania apur bat ere ulertzen du» edo «gaztelania ere ulertzen du». Bereizketa horrek, EHUko irakaslearen ustez, gaztelaniaren ezaguera txikiagoaren seinale da. «Gaztelaniak, dirudienez, gizarte prestigio handiagoa du; diruaren, dokumentuen hizkuntza da. Euskara, berriz, etxerako eta bizilagunekiko harremanetarako geratzen da». Argi dago, hori bai, gehien-gehienak elebidunak direla. Bat dator garaiko beste beste lekukotasun batzuekin; esate baterako, Diaz de Duranak gogorarazten duenez, Andrea Navagiero veneziar enbaxadoreak hamabost urte geroago deskribatu zuen egoerarekin.

IKUSMIRA

Juan Carlos RUIZ I FOKU

PLAZAN HAZI EDO KIKILDU?

Galako jantzita, emanaldirako. Ingurukoen begiek adi jarraituko dituzte txikien hankek marraztutako mugimenduak. Batzuk entseguetan baino arinago eta abilago ibiliko dira; oholtza eder horretan eta jantzi nabarmen horiekin dantzari hobeak sentituko direlako, plazan hazi egingo direlako, eroso hazi. Beste batzuk, berriz, entseguetan baino baldarrago, astunago, traketsago arituko dira, plazak kikildu egingo dituelako, begira dituzten begiek bizkarrean zama jarriko dietelako. Denborarekin ikasiko dute akaso plazakoa maneiatzen, baina norbere nortasunak eta besteek espero dutenak pisu handia dauka dagoeneko gorputz txikietan.

Amagoia Mujika Telleria

EXPRAI

iRRITZIA:

HAURREN OBESITATEA

«Elikadura oinarrizkoa da ume zoriontsuagoak eta gizarte hobea egiteko»

JENDARTEA / Amagoia Mujika Telleria

Haurren obesitatea egungo jendartearen gaitz nabarmena da, Osasunaren Mundu Erakundeak berak abisu eman duenez. Arazoaren oinarrian elikadura ohitura okerrak izaten dira askotan. Horren jakitun, Martin Berasategi sukaldari sonatuak mezu garbia helarazi du: begira diezaiegun gure inguruko ekoizleei gure haurrei ondo jaten erakusteko.

Osasunaren Mundu Erakundeak emana du abisua: 2025. urtean, orain arteko martxan segituz gero, munduan 70 milioi haur obeso izango dira. Horrekin kezkatuta jarri dute martxan "Eat Like a Pro" kanpaina Beko etxetresna elektriko markak eta Bartzelona futbol taldeak. Eta Martin Berasategi sukaldariak ere parte hartu du kanpainan, «haurrei eman behar zaien ikasgairik garrantzitsuena elikadura osasuntsuarekin lotutakoa» dela garbi baitauka. «Haurren obesitatearen inguruan ematen dituzten datuak astakeria hutsa iruditzen zaizkit. Nik hogeita hamar urte daramat esaten hezkuntza alorrean agintzen dutenek egin dezaketen onena eskoletan elikaduraren, nutrizioaren eta dietetikaren inguruko ikasgaia derrigorrez jartzea dela. Elikadura oinarrizkoa da haur zoriontsuagoak eta, beraz, gizarte hobea egiteko».

Berasategiren ustez, lehen urratsa ingurura begiratzea da; bertako nekazariei, arrantzaleei, abeltzainei, ekoizleei, perretxikozaleei... begiratzea. «Euskal sukaldaritzak idatzi duen libururik onena naturak berak idatzitakoa da. Hori jakin behar dute haurrek. Egunero, bertako merkatuetara joan aurretik, naturari begiratu behar diogu, sasoiak zer agintzen digun ikusi behar dugu. Euskal Herrian sekulako pribilegioa daukagu, jaio garen toki honetan naturak gauza asko kontatzen dizkigu zer eta nola jan behar dugun inguruan. Hori ikusten eta entzuten ikasi behar dugu».

Beheko irudian, haurren obesitatearen kontrako kanpainaren irudi bat. Alboko irudietan, haurrak azoketan bertako produktuak gertutik ezagutzen.
GAUR8 - Jagoba MANTEROLA | FOKU

Erosketa organ ezinbestekoak

Martin Berasategik irribarre batekin gogoratzen du bere haurtzaroa eta jakitun da, elikadurari dagokionez, aparteko ingurune batean hazi zela. «Etxera lotara bakarrik joaten ginen. Bodegon Alejandron hazi eta bizi ginen, hor

jaso nituen bizitzaren alfabetoko lehen hizkiak. Jatetxetik bertan, hiriko merkatu onenetarikoa zegoen, Bretxakoa. Horren guztiaren bueltan hazi nintzen ni. Hor ikasi nuen gure erosketa organ ezinbestekoak direla gure baserritarren, arrantzaleen, ekoizleen lehengaiak. Horiek gabe galduta gaude».

Sukaldari sonatuaren ustez, urte batzuetan ahaztuta izan dira lehengai horiek. «Akats handi bat izan da lehengaien garrantzia ahaztea. Kalitateko lehengaiak eta naturaren jakintza dira gure sukaldearen oinarriak. Hori ez genuke inoiz ahaztu behar eta iruditzen zait sasoi batean ahaztu samar izan dugula».

Jasotako ondare horri balioa emateaz gain, ondorengoei ematea ere garrantzitsua da Berasategiren ustez. «Dieta eta elikadura erdigunean jarri behar ditugu, eskoletan irakatsi egin behar dira. Jakintza hori transmititu egin behar da eta daukan garrantzia eman behar zaio, are gehiago haurren artean obesitatea arazo larri bat denean».

«Bodegoira jaisteko 23 eskailera jaitsi behar nituen. Ezkerrera, bezeroentzat mahaiak. Atzeko aldean, ikatz sukaldeak. Sekulako beroa ematen zuten. 23 eskailera jaitsi eta eskuinera, harakinaren mahaia, arrainarentzat erabiltzen zena... Egunean lauzpabost jatordu egiten genituen, dena etxekoa. Meriendatzeko fruta ematen ziguten, fruitu lehorrak, etxean egindako jogurtak... Nire gurasoak eta izeba sukaldean eta sukalderako bizi ziren».

Martin Berasategi jatun ona izan omen da beti, txikitatik. «Etxean beti irakatsi digute mahaian irribarre batekin egoten, jatekoaz gozatzen eta jatekoari balioa ematen. Hori oso garrantzitsua da. Gure garaian ez zegoen telebistarik eta mahaian eserita ginenean, horretara ginen, mahaira. Eta hozkailurik ere ez zegoen. Bretxako merkatuan goizean eta arratsaldean egiten ziren erosketak, udan bereziki. Pentsa zer-nolako unibertsitatea zen hori. Ni jakitun naiz pribilegiatua izan naizela, bizitzarako eta lanbiderako sekulako eskola izan dudala inguruan. Jaio nintzen tokian jaio ez banintz, ez nintzateke iritsi naizen tokira iritsiko. Ni jakitun naiz ditudan hamar Michelin izarrak nire herriko nekazariei, arrantzaleei, ekoizleei, abeltzainei... zor dizkiedala. Eta daukagun aberastasun hori transmititu eta erakutsi behar diegu gure haurrei. Gure eginbeharra hori da».

«Euskal sukaldaritzak idatzi duen libururik onena naturak berak idatzitakoa da. Hori jakin behar dute haurrek. Egunero, merkatura joan aurretik, ingurura begiratu behar dugu»

«Dieta eta elikadura erdigunean jarri behar ditugu, eskoletan irakatsi egin behar dira. Jakintza hori transmititu egin behar da eta daukan garrantzia eman behar zaio»

Berasategik, horrenbestez, garbi dauka: haurrei osasuntsu jaten irakasteko, inguruko ekoizleei begiratu behar zaie, lehengaian jarri behar da fokua. «Hortik abiatuta, proposa ditzagun errezeta dibertigarriak, osasuntsuak, erakargarriak... haur zoriontsuak eta osasuntsuak hazteko. Eta horrela lortuko dugu gizarte zoriontsuagoa, zalantzarik gabe. Jarri dezagun arreta hezkuntzan, erakutsi diezaiegun gure haurrei ondo jaten, osasuntsu jaten. Horrela, helduaroan zoriontsuagoak, osasuntsuagoak eta lehiakorragoak izango dira».

Sukaldea eta kirola

"Eat Like a Pro" ekimena zazpi hilabetean Estatu espainoleko hirietan barna ibili da, elikadura osasuntsuaren inguruan kontzientzia zabaltzen. Beko etxeak babestutako kanpaina izan da eta sukaldaritzaren alorrean jarri du indarra, modu osasuntsuan eta dibertigarrian elikatzea aukera ona dela azpimarratuz. Bestetik, Bartzelona taldeak ere babestu du kanpaina, kirola zutabe oso garrantzitsua baita haur osasuntsuak hazteko orduan. Beraz, bi norabide nagusi izan dituen ekimena izan da, berriki Bilbon amaitu dena.

Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Su eman

Gazte bat suaren gainean saltoka, Hernaniko plazan. Juan Carlos RUIZ | FOKU

Batzuetan munduari su eman nahi izaten diot, nire burua bonzo eran bota norabait, Correoseko egoitza baten kontra, adibidez. Etxerako jada inork gutunik idazten ez duen garaiotan, paper zuriak bankuek, udaletako isunek eta estatuaren zigiludun eskuek soilik betetzen dituzten aro honetan nire burua bonzo eran botako nuke hainbeste albiste txar gordetzen dituzten biltegien kontra. Eta inora iritsiko ez diren isun, ohar, abisu, jakinarazpen eta lixiba usaina darien hitzez apaindutako gutun aseptikoekin fantasiak izaten ditut; inoiz zabalduko ez diren gutun eta gutun-azalak elkarren kontra kuzkurtuta, besarkatuta, ikaratuta erretzen; elkarrekin urtzen ore belztu bat bilakatu arte, hitzek elkar desegin arte.

Suaren gainetik jauzi egiteak ikaratu egiten ninduen umetan. Lagunak ikusten nituen Olinpiadetako jauzilarien gisan behin eta berriz hankarik erre gabe sua gainditzen. Ondotik begiratzen nuen nik. Jauziari baino gehiago erreparatzen nion marrazki bizidunetan txirularen konpasean dantzatzen diren sugeen gisa mugitzen zen su hari. Eta arnasa ere konpas sorgindu hartara errenditzen zitzaidan azkenean, suak keinu egiten zidala iruditzen zitzaidan, "zatoz, zatoz"; eskuak ikusten nituen garretan, ni gonbidatuz. Jendea jauzika suaren gainean, musika inguruan, gurasoen aurpegi kezkatuak txinpartetatik gertuegi igarotzen ziren hanka haiei begira eta sua, sua dantzan, sua "zatoz" esanez. Eta nire baitako bi indarren, garuneko bi hemisferioen edo auskalo zeren arteko guda intimoa, suarekiko ikararen eta erakarmen eroaren arteko talka hamabi urteko ume baten barruko bazter sekretu batean.

Eta orain, batzuetan, munduari su eman nahi izaten diot. Mundu osoari edo munduaren zatitxo bati bederen. Mugazain batzuen gainera bonzo eran jauzi egin, adibidez; Biriatun edo Lesbosen edo El Pason edo Tanjerren, edo denetan batera agian. Eta hego haize bortitz bat irudikatzen dut mapamundiko lerro zuzenegi, lerro gotorregi guztiei putz eta putz eginez; nire ekintza epikoak piztutako gar printza txikia zabaltzen eta zabaltzen; lurraldeen kolore tonu artifizialak lausotzeko adina bederen, mapamundiko muga asmatu batzuk ezabatzeko adina behintzat. Eta hotzikarak sentitzen ditut.

Mundua erre nahi eta egunkari bat hartu dut. Orriz orri, albistez albiste bota dut sutara, poliki-poliki. Eta argazkietako tragediak erre nahi baina tragedietako argazkiak soilik ikusi ditut errauts bilakatzen; politikarien aurpegiera artifizialduak, titular morboz kargatuak eta ikusiko ez ditudan filmen kritikak. Egutegietako orri aukeratu batzuk ere bota ditut sutara, solstizio berria, hutsetik ez bada hautsetik hasteko behintzat. Eta arnasa hartu dut, birikak bete nahian. Arnasa sentitu dut nire gorputzera sartzen. Eta garren azpiko errautsekin egin du topo nire baitako txoko guztietan. •

{ koadernoa } **Nerea Ibarzabal Salegi**

Produktu perfektuok

Baxoaren eta selektibitatearen osteko urteroko lur erreei begira egoten naiz jakin-minez. Ikusten ditut ikasleen irudiak albistegietan, urduri, negarrez, Kant, Descartes, Karlistadak, medikuntzako batez besteko nota, drama. Azterketa euskaraz egiteko eskubidea aldarrikatzen oraindik asko eta asko. Enpatiaz irakurtzen ditut berriak, guk egin genuenetik dagoeneko zortzi urte igaro direla sinetsi ezinik batetik, eta berriro hortik pasako ez naizen ziurtasunak ematen didan lasaitasunez baina nolabaiteko inbidiaz bestetik. Ikasle izaeraren iragankortasuna, ulertzen eta borrokatzen hasten zarenerako testigua pasatu behar hori.

Unibertsitatera joan aurretik urtebeteko deskantsua hartuko duela esan dit duela gutxi 18 urteko gazte batek, eta txundituta utzi nau bere ausardiak. Oso ohikoa omen da Europako hainbat herrialdetan, *gap year* deitzen zaio. Gogoan dut horrela deitzen zaiola, DBHn ingeleseko ikasgaian lan bat egin genuelako honen inguruan. Eta gai naiz garai hartako jendaurreko aurkezpen batzuk oraindik buruz esateko, ez niolako akatsik baimentzen nire buruari, eta mila aldiz praktikatzen nuelako etxean lehenbizi. Imajinatzen duzue nolakoa nintzen eta oraindik banaizen, ezta? Uste dut pertinentea dela honetaz aritzea, hezkuntza sistemak ikasle "txarrak" baztertzen dituen bezala, ikasle "onak" ere ez dituelako bizitzarako prestatzen. Edo bizitza mota jakin baterako prestatzen ditu, bizitza akritiko, obediente eta egonkor baterako.

Islatuta ikusten dut neure burua 10 bat atera ez eta mintzen diren gazte horiengan, eginbeharrak edozeren gainetik jartzen dituztenengan, selektibitatean 14 atera eta antzerkian lan egin nahi duelako animalia mitologikotzat hartu duten gaztearengan. Eta islatuta ikusten naiz, batez ere, gerora bizitzan hanka sartu eta beraien buruei barkatzen ez dietenengan, konfliktoak kudeatzen ez dakitenengan, egin dutena ondo dagoela etengabe entzun behar dutenengan, *gap year* ez-produktiborik beraien buruei baimentzen ez dietenengan, 10aren bila bizi direnengan oraindik, zentzu guztietan. Hau epidemia bat da, eta jende gaixo hau behar du ekonomiaren kate ero honek bizirauteko. "Superatzen" den jendea. Produktu perfektuak gara, selektibitateko eta baxoko azterketa egiteko jaioak, "arrakasta" material baterako diseinatuak, eta horregatik ez zaie interesatzen markatutako errailetatik ateratzea. Izan ingeniari, izan dirua mugitzen den tokiko langile, eman ezazu dena lanaren alde. Horretarako hezi zaitut umetatik.

Eta unerik erabakigarrienean bidea txarto aukeratu baduzu, esan agur zure pribilegioei, segi kulturara nahi baduzu, izan kritiko eta hori guztia, zu zinen ikasle on eta formalarekin, promesa bat zinen, eta begira... zure nota on guztiak alferrik. Alferrik ikasi zenuen dena buruz, alferrik zoriontzen genituen zure gurasoak batzarrero. Hemen duzu zure ordaina: ahal bezala bizirautea. Eta erdi-ipurdikoak ziren zure ikaskideek fabriketan kontratu finkoa dute, eta zuk baino mila euro gehiago kobratzen dituzte hilero. Hori ere jasan ezazu, eta sentitu ezazu inbidia eta amorru pixka bat, umetako ranking horretan sinestera iritsi zinelako zu ere, eta uste zenuelako zu sarituko zintuela sistemak beraien aurretik. Eta gero txarto sentitu hau sentitzeagatik, noski.

> Hezkuntza sistemak ikasle «txarrak» baztertzen dituen bezala, ikasle «onak» ere ez ditu bizitzarako prestatzen. Edo bizitza mota jakin baterako prestatzen ditu, bizitza akritiko, obediente eta egonkor baterako

Ekainero aurpegiratzen dit nire erabakia telebistak, eta ekainero iruditzen zait ez dudala inoiz ikasi azken zortzi urte hauetan bezainbeste. •

Google erakundearen ikerketa sarietako bat lortu dute. Mundu mailako sariketan, punta-puntako proiektuak lehiatzen dira. Guztira 158 proposamen saritu ditu Googlek –adimen artifizialaren esparruko 18 arlotako 910 hautagairen artean, 40 herrialdetako 320 unibertsitatetik– eta UPV/EHUko Informatika Fakultateko Ixa taldeak aurkezturikoak lortu du sarietako bat, 80.000 dolarreko laguntza ekonomikoarekin.

Interneten dagoen informazioari buruz hitz egin ahal izateko elkarrizketa sistemak garatzea du helburu proiektuak. Finean, makinarekin harremantzeko modu berriak sortzen ari dira.

Nor dago saritutako proiektuaren atzean?

[Eneko Agirre] Saritu duten proiektuaren atzean Ixa taldea –*http://ixa.si.ehu.es/*– dago. Lengoaia naturalen prozesamenduan aitzindaria da Euskal Herrian. Duela hogeita hamar urte baino gehiago sortu zen eta hasierako motibazioa euskararen prozesamendua eta zuzentzaile ortografikoa izan ziren. Itzultzaile automatiko bat egiten hasi ginen. Urteak pasatu dira, baina ikerkuntza lerro hau ez da inoiz bukatzen. Azkenean, anbizioa da hizkuntza ulertzea eta hizkuntza ulertu arte egongo da zabalik ikerketa lerroa.

Teknologiari euskara irakasten ari zarete?

[E.A.] Hori da motibazioetako bat. Gertatzen dena da teknologiari euskara, ingelesa edo txinera irakasteak zailtasun bera duela; lantzen ditugun teknikek hizkuntza guztietarako balio baitute. Hala ere, egia da hizkuntza bakoitzak bere baliabideak behar dituela; hiztegiak, testu multzoak...

«Googlek emandako sariak errekonozimendua eta prestigioa ekarri dizkigu. Eta, horrez gain, diruarekin jendea kontratatu ahal izango dugu proiektuarekin aurrera egiteko»

Eta, noski, hizkuntza handiek eta txikiek ez dituzte tresna berdinak eskura.

[E.A.] Tresnak eta baliabideak. Erabiltzen ditugun algoritmo askok adibideetatik ikasten dute. Orduan, euskarazko adibide kopuru handi bat emanda, ingeleserako kalitate bera lor daiteke. Finean, tresna berdina da. Arazoa da euskarazko adibide gutxiago daudela.



Juan Carlos RUIZ | FOKU

«Joera aldatzen ari da eta gero eta gehiago erabiltzen da ahotsa makinekin harremanetan jartzeko»

ENEKO AGIRRE ETA JON ANDER CAMPOS

IXA TALDEKO KIDEAK

Pertsonak makinekin harremantzeko modua aldatzen ari da. Gero eta gehiago, ahotsez gertatzen da, dialogo bidez. Teknologiari euskara irakasten ari direnak joera berriei begira daude. Hain zorrotz, oraintsu Google erakundearen sari garrantzitsu bat lortu dutela. Eneko Agirre irakasle eta ikerlariak eta Jon Ander Campos doktoregaiak azaldu digute saritutako proiektua.

Amagoia Mujika Telleria

Google erakundearen ikerketa sarietako bat lortu duzue. Zertan datza zuen proiektua?
[Jon Ander Campos] Proiektu horren helburua da Interneten atzigarri dagoen informazioa dialogo bidez atzitzeko modua eskaintzea. Finean, gaur egun bilaketa asko egiten ditugu, telefonoaren bidez edo, baina joera aldatzen ari da eta gero eta gehiago erabiltzen dira ahotseko laguntzaile birtualak. Beraz, azken helburua izango litzateke bilaketa horiek dialogo bidez egitea.

Aldaketa ematen ari da? Ahotsak gero eta garrantzia handiagoa al dauka?
[E.A.] Bai. Orain arte asko erabili izan da bilaketa mota bat. Ordenagailuaren aurrean eserita zaude, zure bilaketa sartzen duzu eta dokumentu oso bat agertzen zaizu. Orduan, dokumentu hori guztia irakurri behar duzu interesatzen zaizuna topatzeko. Gertatzen dena da beti ez gaudela eserita eta tekleatzeko moduan, gero eta gehiago konektatzen baikara Internetera telefono mugikorretik. Orain edozein egoeratan gaudela egiten dugu kontsulta.

Gainera, orain badugu lehen ez genuen gaitasun bat: dokumentuan dauden pasarteak errekonozitu ditzakegu eta galderak zuzenago erantzun. Adibidez, lehen bilatzailean galdetzen bazenuen zenbat biztanle dituen Donostiak, Donostiari buruzko dokumentu luze batera eramaten zintuen, eta hor datua topatu behar zenuen. Baina, orain, aldiz, galdera horri zuzenean erantzuten dio bilatzaileak berak. Kasu batzuetan, teknologia gai da dokumentua bilatu eta bertatik erantzuna ateratzeko.

Beraz, kontsulta horiek ahoz egingo dira gero eta gehiago.
[J.A.C.] Bai. Azken finean pertsonen artean interaktuatzeko dagoen modu naturala ahotsa den bezala, helburua da makinarekin interaktuatzeko modua ere ahotsa bihurtzea. Erosoagoa da.

Robotikarekin lotura duela dirudi. Alor horretan ere pertsonen eta teknologiaren arteko harreman ahalik eta naturalena bilatzen da.
[E.A.] Bai, neurri batean lotuta daude. Makinarekin komunikatzeko modu berri bat bilatzen ari gara. Esparru hau oso zabala da. Gauza bat da robot batekin komunikatzea. Adibidez, etxea garbitzen duen gailuarekin hitz egin ahal izango genuke eta agindu zehatzak eman. Eta beste gauza bat da sukaldeko errezeta baten inguruko zalantza bat galdetzea. Kasu horretan, dokumentu luzeago batetik aterako du erantzuna makinak. Gaitasun desberdinak dira. Googleren ikerketa sarietan aukeratu duten proiektua gehiago doa bigarren horretatik.

Kontsultak ahoz egin ahal izatea erosoagoa da. Baina pentsatzekoa da egoera jakinetan oso baliagarria izan daitekeela.
[E.A.] Bai. Adibidez irudika dezakegu pertsona bat sukaldean, eskuak zikinduta, eta errezetaren inguruko galdera bat egiten telefonoari. Edo norbaiti deitzeko agindua ematen ahotsez. Baina, era berean, ahotsaren bidez makinarekin gauzak egin ahal izateak bide berri asko irekitzen ditu, zaintzaren alorrean kasu. Gaitasun teknologiko handirik ez duen adin nagusiko jendeak ahotsez emango dio agindua makinari; edo berdin bere gaitasunak mugatuak dituen pertsonak.

Googleren sariak zer dakar?
[E.A.] Batetik, errekonozimendua eta prestigioa. Kalitatezko ikerkuntza errekonozitzen duen kanpoko sari bat da, finean. Eta, horrez gain, diruarekin jendea kontratatu ahal izango dugu proiektuarekin aurrera egiteko.

Zeintzuk izango dira proiektuaren hurrengo pausoak?
[E.A.] Proiektuaren hasieran gaude oraindik. Googlek saria eman aurretik proiektu europar bat genuen alor horretan. Orain, sariak proiektua indartu egiten du. Dagoeneko diseinatuta genuen zein datu jaso nahi genituen eta zer den makinak ikasi behar duena. Orain, askoz datu gehiago jaso behar ditugu eta algoritmo ahaltsuagoak erabili horretarako.

Eta deialdi publiko bat egin duzue horretarako.
[E.A.] Bai, bi kontu daude. Lehen esan dudan bezala, sistema hauek ikasten dutena baliagarria da edozein hizkuntzarako. Ikerkuntzaren munduan, nagusiki ingelesa da erabiltzen dugun hizkuntza algoritmo hoberena nork duen konparatzeko. Finean, gure Olinpiadak ingelesez egiten dira. Horretarako elkarrizketa asko jaso behar ditugu eta dagoeneko badago plataforma bat horiek jasotzeko. Hori erraza da.

Baina Ixa taldearen helburua tresna teknologikoak euskaraz eskaintzea denez, deialdi irekia egin dugu euskarazko adibide ahalik gehien lortzeko eta ingeleserako garatu dugun teknologia hori euskarara aplikatu ahal izateko.



Juan Carlos RUIZ | FOKU

Nola josten dira algoritmoak osatzeko dialogo horiek?
[J.A.C.] Bi pertsonen arteko interakziotik. Pertsona batek dokumentu osoa dauka eta besteak dokumentu horri buruzko galdera zehatzak egiten dizkio. Gaur egun badaude "ohiko galderak" edo deitzen direnak web orrialde askotan. Bada proiektuaren helburuetako bat da "ohiko galderak" automatikoki eta dialogo bidez erantzuteko modua eskaintzea. Bi pertsonen arteko interakzio horietatik dialogo adibide mordoa lortzen dugu. Google erakundeak emandako sariari esker adibide gehiago lortu ahal izango ditugu –dialogo bakoitzak prezio bat daukalako–. Eta euskarazkoak ere bildu nahi ditugu.

«Izaten dira albiste beldurgarriak eta filma kezkagarriak, baina teknologia oraintxe bertan oso sinplea da. Makinari galdera bat egitean, algoritmo baten bidez, erantzunaren hasiera eta bukaera identifikatu dezake»

Euskarazko dialogoak sortzeko boluntario bila zabiltzate. Zer egin behar da?
[J.A.C.] Bi pertsonen artean egin behar dute ariketa. Batek euskarazko Wikipediako artikulu bat izango du eskura eta besteak galderak egingo dizkio ahalik eta informazio gehien lortzeko. Besteak erantzunak testutik hartuko ditu. Helburua da galdera bat hurrengoarekin lotuta egotea eta dialogo kutsua izatea. Ahalik eta euskarazko adibide gehien lortu nahi ditugu.

Idatziz egin beharko da ariketa, ezta?
[J.A.C.] Bai, ariketa idatziz izango da, ahotsaren kalitatearekin gorabeherarik ez izateko hobe da horrela.

Zein fasetan dago bilketa?
[E.A.] Orain boluntarioak jasotzen ari gara. Behin boluntarioak bilduta, beraien arteko elkarrizketan jarriko ditugu teklatu bidez. Norberak bere etxetik egin ahal izango du minutu gutxi batzuetan. Eta nahi adina elkarrizketa egin ahal izango ditu. Gainera, parte hartzaileen artean sari bat zozkatuko dugu. Milaka elkarrizketa behar ditugu. Jasotzen ditugun datuei esker espero dugu euskaraz beste aplikazio bat egotea, ingelesaren parekoa.

Hala ere, akaso lortuko dugu ingelesezko elkarrizketetatik ikasitakoa euskarara aplikatzea. Ondorioz, nahiz eta euskaraz adibide gutxiago izan, beharbada lortuko dugu ingelesezko kalitate bera elkarrizketa gutxiagorekin. Finean, pertsonok munduari buruz dakiguna, hizkuntza bat ikasten dugunean, hizkuntza horretara eramaten dugu.

Makina gero eta pertsonaren antzekoagoa da, beraz?
[E.A.] Galdera sinple horiek erantzuteko bai. Izaten dira albiste beldurgarriak eta filma kezkagarriak, baina teknologia oraintxe bertan oso sinplea da. Finean, makinari galdera bat egitean, algoritmo baten bidez aukera izan dezake erantzunaren hasiera eta bukaera identifikatzeko. Kito. Hortik abiatuta norbaitek pentsatzen baldin badu makina adimentsua dela eta

bere iritzi propioak dituela, oso oker dabil. Hori garbi eduki beharko genuke. Normalean, ikerlariak garenoi barregura sortzen zaigu zenbait iragarpen katastrofiko entzutean. Aitzurra asmatu zenean norbaitek munduan aitzurrarekin zulo ikaragarri bat egin eta mundua aitzurkadaka txikituko zela esatea bezalakoa da. Oraintxe bertan aitzurraren mailan gaude.

Ikerlariek garbi daukazue teknologia laguntzeko dela, gure bizitza errazteko. Baina kontrako norabidean ere erabil daiteke.

[E.A.] Bai, eta horregatik da garrantzitsua unibertsitateetan eta ikerkuntza zentro publikoetan puntako gaietan jendea aritzea, erabilera ona eta txarra bereizteko gai izateko. Finean, ikerkuntza horiek zentro pribatuetan bakarrik egiten baldin badira, gizartea babesik gabe geratzen da, ez baitauka bere alde egingo duen inor. Horregatik oso garrantzitsua da ikerkuntza egitea, ez bakarrik aurrerapenak egiteko, baita erabilera txarra ematen denean horren aurrean erreakzionatzeko gaitasuna izateko ere.

«Kalean ez badugu euskara erabiltzen, ez da entzuten, ez da existitzen. Teknologiarekin berdin, ez badaukagu nabigatzailea euskaraz, teknologia konpainiak ez dira konturatzen gu euskaldunak garela»

Gero eta gehiago, makinekin ahotsaren bidez arituko garela diote adituek. GAUR8

Berez unibertsitateak zer interes dauka ikerkuntzan?

[E.A.] Zientzia zientziagatik, gizarteak aurrera egiteko. Eta gure kasuan, Ixa taldean eta Hitz ikerkuntza zentroan, euskara da zutabeetako bat. Gure helburuetako bat da euskara ez geratzea beste hizkuntzen atzean.

Nola kokatzen da euskara bezalako hizkuntza txiki bat teknologiaren mundu erraldoi horretan?

[E.A.] Hizkuntza txikiek beti handiek baino babes gutxiago daukate, baita teknologiaren alor honetan ere. Berri ona da gaur egun, hizkuntzen teknologia hainbeste aurreratu denez, software industria erraldoien –Google, Microsoft, Apple...– eskuetan ere gero eta hizkuntza gehiago estaltzen direla. Adibidez, Googlek aspalditik dauzka gauza asko euskaratuta, nahiz eta hizkuntza txikia izan. Euskarak orain arteko indarrarekin edo gehiagorekin jarraitzen badu, ez dauka etorkizun txarra.

Horretarako erabiltzaileak euskararen aldeko hautua egin behar du, ezta?

[E.A.] Bai, hori da. Badaude mugikorra euskaraz edukitzeko deia egiten duten kanpainak eta garrantzitsua da. Kalean bezala gertatzen da: ez badugu euskara erabiltzen, ez da entzuten, ez da existitzen. Teknologiarekin berdin, ez badaukagu nabigatzailea euskaraz, teknologia konpainiak ez dira konturatzen gu euskaldunak garela. Gaztelerazko edo frantseseko erabiltzaileen artean agertuko gara.

Ikerkuntzan zaila da epeak zehaztea, baina zein da datozen urtetarako zuen plana?

[E.A.] Proiektu honek badu epe bat; adibidez, Jon Anderrek [Campos] tesia aurkeztu beharko du hemendik hiru-lau urtera eta ordurako gauza dezente egingo ditugu. Googleren proiektua, berriz, urtebetekoa da. Badakigu helburuak beteko ditugula baina asko geratuko da egiteko. Espero duguna da ikerketa lerro horretan datozen lau urtetan ahalik eta emaitza onenak lortzea. Finantzazioa dagoen bitartean eta arazoak erakargarriak diren bitartean, aurrera egiten da ikerkuntzan.


ireki gure leihoa
GAUR8

Itxoiten

Koldo Sagasti

Erreumatologoaren itxarongelan nago zain. Hiru hilabete dira hitzorduaren esperoan nagoela, bost minutuko zitak nire bizi kalitatea hobetuko duen itxaropen antzuan. Harrera gelan nire egonaldia arinagoa egitearren sega-potoaren pantailan nabigatzen berrogei minutu daramatzadala, atentzioa eman didan artikulu batekin egin dut topo. Javier Auyero etnografoaren liburu baten aipamena egiten du: "Estatuaren pazienteak". Ikerketa lanean Texaseko Unibertsitateko soziologia doktoreak ondorioztatu du pobreei itxaronaraztea gizarte kontrolerako tresna bat dela. Haren esanetan botereak itxaronaldiak baliatzen ditu herritar xumeak, gizarte maila apalenekoak bereziki, zelatatzeko eta zigortzeko. Hala, itxaroteak sentimendu subjektibo bat eragiten du zain dagoenarengan, itxoitea bere eginbeharra dela sinetsarazten dio, bere gizarte estatusari dagokiona, eta itxaron-tartearen ostean saria jasoko badu, pazientzia handiko hiritar zintzoa izan behar du. Osasun sistema publikoaren bezeroa noizbait artatuko duten esperoan, etorkina bere egoera legala normalizatuko duten paperen itxoite amaigabean, leihatilako ilaran dagoena beste leihatila batera bideratuko duen funtzionarioaren aginduaren zain...

Itxaronaldia menderatze tresna bat da, botereak klase herrikoiak azpian hartzeko baliatzen duena, errepresio erreminta sotila. Estatuaren pazienteak birritan gara paziente adiera polisemikoaren esanahiei erreparatzen badiegu: gaixoak garelako eta sinistuta gaudelako eraman handiz jasan behar dugula itxaron-denbora. Pribilegiatuentzat, berriz, bestelako erritmoan mugitzen da sistema. Haiek beste maila batean bizi dira, abiadura handiko munduan. •

Kuadrillakeriaz

Itzea Urkizu Arsuaga

Demagun iritzi zutabe bat idatzi beharra daukazula, udako solstizioa iristear denean. Demagun, asteburuan Kuadrilla Eguna dela zure herrian eta, testurako ideia zaparrada osatzen ari zarenean, begiradak "kuadrilla" hitzean geratu duela bere bidea, oroitzapenei ibiltzen uzteko.

Kuadrilla, tokatzen edo aukeratzen den lagun taldea. Gurasoen gonapetik gizartera salto egiteko eskubidea aitortzen dizun idatzi gabeko dokumentu ofiziala, eta parranda korroan egiteko ohiturari zentzua ematen dion arrazoi bakarra. Elkarrekin ikastera, elkar babestera, elkarri min ematera, lotzera edo askatzera eraman gaituen erakunde-sozial itxi eta zurrun hori. Maite dut Kuadrilla Eguna nire herrian, baina nahiago nuke sailkatze horien beharrik ez duen festa baten adrenalinaz ito; eta, bide batez, kuadrillen "-keria" guztiak ahaztu.

Demagun, kuadrilla batek talde argazkia atera nahi duela, eta zuri eskatzen dizutela, mesedez, momentua izoztea. Demagun, ia 40 lagun –gizon– kamerari begira ari direnean, ahots batek zuri buruzko iruzkin bat oihukatzen duela, artaldearen anonimotasun gozotik, eta zuk ezer esan gabe alde egiten duzula, kamera bertan utzita. Demagun, ahotsa altxatu duenaren kuadrillako askori gehiegikeria iruditzen zaiela, zuk hori guztia jarrera matxistatzat hartzea.

Edo, imajina, beste norbaitek ezagunei gertu hitz egiteko edo gerritik heltzeko ohitura duela. Imajina, haren bizilagunak, bere gisara festan ari diren emakumeei goitik behera begiratzen diela, nabaritzeko moduan, eta, egoki deritzonean, puntuazioa ere jartzen diola gorputz bakoitzari. Imajina, ohitura hori "bere ohitura" dela haren kuadrillan eta, gehienek, aspaldi erdietsi zutela norena den arazoa.

Bai, gaur Kuadrilla Eguna da gurean, eta gogotik ospatuko dugu bizitza; edo saiatuko gara. Hori bai, talde handietan, itxi edo irekietan, nahiz bi lagunekoetan, gauzei bere izenez deitu, pultsera moreak jantzi aurretik. Gora Kuadrilla Eguna, behera konplizitateak! •

SARE@N

> Udalen eraketaren beste aldea

NAIZ+

Joan den larunbatean osatu ziren udalak eztabaidagai izan dira sare sozialetan. Herriz herriko irudi eta bideo ugari jaso ziren bertan. Errenterian Udalbatzak bere lehen emakume alkatea hautatu zuen. Aizpea Otaegik politikan eta lan munduan aitzindari izan diren emakumeak gogorarazi zituen bere lehen diskurtsoan.

Otaegik alkatetza hartzeko momentuan utzi zuen Julen Mendozak kargu hori. Alkate izan den urteotan, Mendozak herritarren eta udaleko langileen errespetua biltzen jakin du. Langile horiek "Agurra" dantzatuz agurtu nahi izan zuten alkate ohia.

Vianako Udalean bizi izandakoa gutxienez bitxia izan zen. Yolanda Gonzalezek, PSNkoak, berriro hartu zuen alkate kargua. Zinegotzi gazteenak, Navarra Sumako Sara Ojangurenek, makila eman behar zion alkateari, baina ez zuen askatu nahi izan. « Ez duzu merezi», esan zion alkateari. "Diario de Navarra" egunkariaren arabera, zinegotziak honela esan zion: «Ezin dizut eman Vianako herriak eman ez dizuna [...] Hortxe duzu traizioaren daga, har ezazu zerorrek».

Enrique Maya Navarra Sumako hautagaia, bere 13 zinegotziak baliatuta, Iruñeko alkate berria da. Maite Esporrin PSNko kideak bere buruari eman zion boza, eskumaren alternatiba eragotziz. Ondoren, aginte makila galduta, Joseba Asironek oso partekatutako hausnarketa bat zabaldu zuen sare sozialetan.

> Euskal mitologia, Pirinioetako Mitologia Jardunaldian

Bihar Guardia d'Aresen (Lleida) Pirinioetako Mitologia Jardunaldia egingo dute. Edizio honetako mitologia gonbidatua Euskal Herriko mitologia izango da. Festa horren hamahirugarren edizioa izango da biharkoa. Ekimenaren helburua urteko gaurik motzenean poesia eta magia giroa sortzea da.

Ekitaldia arratsaldeko bostetan hasiko da, hitzaldi batekin, Txopo Lopez de Roblesek elezaharretako euskal munduaz egingo duena, hain zuzen. Ondoren bi dokumental emango dituzte. Zortziak aldera Guardiako ibilaldi gidatua abiatuko da Tarter los Manairons gunetik, eta, bertan, "Udaburuko gaua" ikuskizuna izango da.

naiz+

> Trikiti doinuak, Japoniako erosketak girotzeko

Ohikoa da ingurune komertzialetan musika entzutea, izan ere, zenbait ikerketaren arabera, erritmo biziek salerosketak sustatzen dituzte. Japonian, helburu horrekin, trikiti doinuak erabiltzen dituztela deskubritu du Rafa Mungia Radio Vitoriako kazetariak. Tokion egon da egunotan arrasatearra eta bertako merkataritza gune batean entzundako doinuak zabaldu ditu Twitterren bideo baten bidez. EiTBko kazetari Mikel Reparaz ere aipatzen du Mungiak txioan, hark ere Japoniako denda batean trikiti doinuak entzun zituelakoan. Eta bai, Reparazek baietz erantzun dio.

Ez dira gure doinuak Japonian entzun dituzten bakarrak. *@Betelu11* Twitter erabiltzailea ere sartu da elkarrizketan eta beti trikiti doinu berberak entzuten direla esanda, disko berri bat bidaltzeko eskatu du.

> Sareak sumindu dituen aldizkari azala

Egunotan Estatu frantsesean jokatzen ari den Munduko Futbol Txapelketa emakumeek orain arte parte hartu duten lehiaketarik mediatikoena bihurtu da. Zerbait aldatzen hasi da emakumezkoen futbolean. Hala ere, informazio guztiak ez doaz norabide onean.

"Charlie Hebdo" aldizkari satirikoak txapelketa horri eskaini dio bere portada, baina haren edukiak polemika piztu du sare sozialetan. Sexistatzat jotako irudian, baloi bat ikusten da, eta esaldi bat: «Hilabetez jango dugu». Halaber, aldizkari ezagunaren zenbaki horretako editoriala oso kritikoa da emakumeen futbolarekin. Zalantzan jartzen du emakumezkoen futbolak ere «jendetza aberetzen lagundu behar ote duen, horrela serio hartu eta gizonezkoen futbolaren parekotzat har dezaten».

"Charlie Hebdo" aldizkariaren azken zenbakiaren aurrean, sareetako erreakzioak berehalakoak izan dira.

> Tom Morellok fan baten sakelakoa jaurti du haserre

Tom Morellok, Rage Against The Machine, Audioslave eta Prophets Of Rage taldeetako gitarristak, bere jarraitzaile baten sakelako telefonoa bota du kontzertu batean, Morello gitarra solo bat jotzen ari zela zalea berarekin *selfie* bat ateratzen saiatu zenean.

Une hori jasotzen duen bideoa ziztu bizian zabaldu da, eta kontzertuetan sakelakoak erabiltzearen gaineko eztabaida piztu du. Internet eta teknologia berriek gure ikuskera aldatu dute. Egiten dugun guztia erakutsi nahi dugu, bisitatzen ditugun lekuak eta jaten duguna kasu. Kamera sakelan, gehienetan momentua gozatzeak baino hura hilezkortzeak arduratzen gaitu gehiago.

Amaia Urrejola
Sexologoa eta psikologoa Euskal Herriko Sexu Heziketa Eskolan

Euskal Herrian ligatzea atsegin dugu!

Ligatzera bultzatzen gaituen emozioa desira da, interesa edo gogoa, hain zuzen. Pertsona batekiko erakarpena sentitzen dugunean, berarekin erlazionatzeko eta egoteko gogoa pizten zaigu. Askotarikoa izan daiteke horretarako bidea, eta, orokorrean, sedukzioaren bitartez hasten da. Sedukzioa joko bat da eta joko arauak ditu, baina, bikotearen arabera ezberdinak izango dira. Ondorioz, bikoteek desberdin jolastuko dute, hau da, desberdin seduzituko dute bikotekidea.

Lehenik, sedukzioaren fasea luzea edo motza izan daiteke. Bigarrenik, batzuentzat atsegingarriena sedukzio fasea da, besteentzat, ordea, guztiz kontrakoa. Batzuentzat helburu bakarra sedukzioa da, eta, besteentzat, ondoren etorriko denaz gozatzeko gainditu beharreko oztopoa. Horrez gain, pertsona batzuek baliabide ugari eta askotarikoak dituzte sedukzioaren jokorako; beste batzuek, aldiz, ez, eta rol eta estereotipo matxistak imitatzen dituzte. Gainera, batzuentzat dibertigarria eta estimulatzailea izan daiteke, eta, besteentzat, aldiz, aspergarria; alferkeria ere sentitu dezakete. Azken finean, izateko eta sentitzeko modu anitz daude. Baina, bi pertsonen artean ematen den mugen arteko dantza horretan, oinarrizkoena, joko arauak negoziatzea eta konpartitzea da. Joko arauak, etengabe eta modu berbalean eta ez berbalean adosten dira. Sedukzioa une oro ematen den negoziazio prozesua baita. Horrela ez bada, gainera, kosifikazioa eta jazarpena eman daitezke.

Desira emozio konplexu bat da eta ezaugarri desberdinak ditu. Izan ere, gure desira modu eromenikoan edo erastikoan pizten bada, desberdin murgilduko gara jokoan. Eromenikoen kasuan, interesa desiratuak eta desiragarriak sentitzen direnean piztuko da. Erastikoen gogoa, berriz, erakarpena sentiarazten dien pertsona ikustean. Erastikoen kasuan, lehen aukera egiten dutenez, iniziatiba hartu eta gerturatu egin daitezke, erabakigarria izan gabe besteak zer sentitzen duen. Eromenikoen kasuan, berriz, aukeratuak izan ostean hautatzen dutenez, gogoa beren burua sedukzioaren jokoan murgilduta topatzen dutenean piztuko zaie. Betiere, jolasa eta pertsona desatsegina suertatzen ez bazaie. Pertsona guztiok eromenikoak eta erastikoak izan gaitezke, baina beti dago joera bat. Hala ere, gizarteak historian zehar ligoteo heteronormatiboa inposatu du: gizona harrapakaria eta emakumea harrapakina. Beraz, arautik kanpo gelditzen diren seduzitzeko modu guztiak epaitu ditu eta arraro eta ikusezin bihurtu dira. Ondorioz, ligoteoa antinaturala bilakatu da.

Sedukzioa joko bat da eta joko arauak ditu. Jon URBE | FOKU

Ligatzea, beste pertsonaren espazio bitala trebetasunarekin eta enpatiarekin zirikatzea da. Baina, beste pertsonaren erantzuna positiboa ez bada, saiakeran atzera egitea beharrezkoa da. Garrantzitsuena ez delako ligatzea, nola ligatzen dugun baizik, horretan baitatza ligatzearen eta jazarpenaren arteko muga. Beraz, ez dugu lotsarik sentitu behar, eta, are gutxiago, ligatzen saiatu disimulatuz ligatzen ari garela. Norbanako bakoitzak, askatasunez, bere estilo propio eta urratzailea garatzea ezinbestekoa da, Euskal Herrian ligatzea atsegin dugu-eta. Funtsean, gure buruarekin leialak izanik, asertibitatea praktikan jartzea da kontua, pentsatzen eta egiten duguna errespetuarekin esanez eta eginez, alegia. •

BEHATXUL TIK

Juantxo EGAÑA

IMANOL GARCIA

LEMOIZKO ZENTRALAREN AURKAKO MARTXA ETA ERREPRESIOA

Gernikako bonbardaketaren 50. urteurrena zela-eta, Gernika 37-87 Batzordeak, bere jarduera kulturalen barnean, liburu bat argitaratu zuen. Bertan, hogei berriemaile grafikok Euskal Herriko azken hamarkadako irudiak (1977-8197) aurkeztu zituzten. Hauxe zioen liburuaren hitzaurreak: «Argazkion balio artistikoaz gainera, askatasunerantz eta bakerantz doan herriaren errealitatearen isla bizia dira». Proiektu haren koordinatzailea Imanol Garcia argazkilaria izan zen, eta azalaren diseinua Javi Ubiernak egin zuen. Testu hau ilustratzen duten argazkiak, Armintzan eginak, 1983koak dira eta argitalpen hartan ere ageri dira. Haietan, Lemoizko zentral nuklearraren aurkako martxa jendetsu bat eta ondorengo polizia-erasoa ikusten dira. Egilea Imanol Garcia da, bere ibilbide profesionala "Egin" egunkarian eta Euskal Herriko hainbat aldizkaritan egin zuena, hala nola "Anaitasuna", "Askatasuna", "Punto y Hora de Euskal Herria" eta "Zeruko Argia". Euskal gatazkari eman zion trataera berezia tarteko, garaiko Europako zenbait argazki agentziak haren argazkiak eskatu zituzten.

Begiratzeko modua aldatzeak aldatu dezake mundua

GAUR8 Larunbatero **GARA**rekin

9 771887 675001 90622